

**AÑARBEKO UREN
MANKOMUNITATEA**

AURREKONTU OROKORRA

2021eko ekitaldi ekonomikoa

AURREKONTU OROKORRA 2021EKO EKITALDIA

AURKIBIDEA

I.	Sarrera	1
II.	2020rako Aurrekontu Orokorraren edukia	1
	A) Añarbeko Uren Mankomunitatearen aurrekontu propioa	1
	B) Aguas del Añarbe–Añarbeko Urak, SA sozietate publikoaren aurrekontua	3
	1. Sarrera	3
	2. AUSAren aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria.....	3
	3. Kapitulukako laburpena	7
	4. Kontu-sailkako xehetasuna	9
	5. Konpromiso-kredituen xehetasuna.....	14
	6. Gastu arrunteko kapituluaren banakapena jardueren arabera	15
	7. Inbertsioen eranskina	15
	7.1. Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan	16
	7.2. Inbertsioak AUMAren/AUSAren ekimeneko obra berrietan.....	16
	7.3. Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak	18
	7.4. Inbertsioak guztira	19
	7.5. Inbertsioen memoria.....	19
	7.6. Sarrera jakin batzuk gauzatzearen edo kostuetan aurreztearen mende dauden inbertsioak.....	38
	C) Aurrekontu bateratua	40
	D) AUSAren aurreikusitako kontuak	41
	E) GECASAren aurreikusitako kontuak eta aurrekontua	44
	F) Maileguen egoera	51
	G) Zorpetzearen eranskina	53
III.	Aurrekontu Orokorra gauzatzeko araua.....	54

AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEAREN AURREKONTU OROKORRA 2021EKO EKITALDIRAKO

I. Sarrera

Dokumentazio honek osatzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak eskatzen duen dokumentazioarekin batera, Añarbeko Uren Mankomunitatearen Aurrekontu Orokorra 2021eko ekitaldirako. Aurrekontu horrek, indarrean dagoen araudia betez, Mankomunitatearen aurrekontu propioa eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA (AUSA) sozietate publikoarena barne hartzen ditu. Izan ere, AUSA Mankomunitatea kudeatzeko organoa da 1995ean eratu zenetik. Halaber, Gestión de Centrales del Añarbe, SA (GECASA) sozietateari dagozkion aurreikuspenak barne hartzen dira. AUSAk % 70eko partaidetza dauka aipatutako sozietatean, eta Energiaren Euskal Erakundeak % 30ekoa.

II. 2021erako Aurrekontu Orokorraren edukia

A) Añarbeko Uren Mankomunitatearen aurrekontua

Añarbeko Uren Mankomunitatearen Aurrekontuak sarreraren eta gastuen egoera aurkezten du (aurrerago zehaztuko dira). Kudeaketarako Sozietate Anonimoa sortzeak eta Mankomunitatearen eta Sozietatearen arteko harremanak erregulatzen dituen hitzarmena sortzeak (hitzarmenak Sozietatearen esku uzten ditu 1995eko abenduaren 31ra arte Mankomunitateak ematen zituen zerbitzuak) hainbat aldaketa ekarri dituzte aurrekontuetan, eta haiek sarrera eta gastuetan eragina izan dute.

Aipatutako aurrekontua osatzen duten aurreikuspenak eta kredituak beren jatorri ekonomikoaren arabera antolatuta daude, indarrean dagoen aurrekontu-sailkapenaren arabera.

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua / Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
3	Tasak eta bestelako sarrerak	10.001
399.01	Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak	1
399.02	Beste sarrera batzuk	10.000
Sarreraren egoera-orria guztira		10.001

399.01 azpikontzeptua – Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak: Sozietatetik jasotzen diren sarrerak, Mankomunitatearen eta hainbat erakunde publikoren artean hitzartutako azpiegitura-lanak finantzatzeko erabiliko direnak, erregistratzera zuzenduta dago.

399.02 azpikontzeptua – Beste hainbat sarrera: Hainbat motatako sarrerak erregistratzen zuzenduta dago.

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua / Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	10.001
226.99	Beste hainbat gastu	10.000
227.99	Kanpoko beste lan batzuk	1
Gastuen egoera-orria guztira		10.001

226.99 azpikontzeptua – Beste hainbat gastu: Gastu arruntetatik datozen hainbat obligaziori erantzutera zuzendutako kreditua.

227.99 azpikontzeptua – Kanpoko beste lan batzuk: Hainbat erakunde publikorekin azpiegitura-lanak finantzatzeko sinatutako hitzarmenen ondoriozko obligazioei erantzutera zuzendutako kreditua. Oso-osorik kudeaketa-sozietateari jasanarazten zaionez, zabalgarritzat hartzen da berariaz.

B) Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietate publikoaren aurrekontua

1. Sarrera

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA Sozietate Publikoa denez, indarrean dagoen aurrekontu-araudiaren mende dago. Aipatutako araudia betez, aurrekontuarekin batera, honako dokumentu hauek aurkezten dira:

- 2021eko abenduaren 31rako aurreikusitako balantzea
- 2021eko ekitaldirako aurreikusitako galera-irabazien kontua
- 2021eko ekitaldirako ondare garbian aurreikusitako aldaketan egoera-orria

Ondoren zehazten den aurrekontuan agertzen diren aurreikuspenek eta kredituek barne hartzen dituzte lehen mailako sarean ura hornitu, saneatu eta arazteko zerbitzugintzari lotutako horiek.

2. AUSAren aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria

2021eko ekitaldi ekonomikorako aurreikusitako sarrera eta gastuen kontzeptu nagusiak honako hauek dira:

Zerbitzugintzaren ondoriozko sarrerak

Atal honek barne hartzen ditu Sozietateak emandako zerbitzuen ondorioz zenbatetsitako sarrerak, kontzeptu hauek direla eta:

Kontzeptua	Zenbatekoa (€-tan)
Hornikuntza	6.609.716
Saneamendua	6.136.864
Arazketa	5.281.217
Zerbitzugintzaren ondoriozko sarrerak guztira	18.027.797

Jakina denez, aurrekoen artean hartzen den sarrera nagusia kide diren udalei lehen mailako sarean ura hornitzeko, saneatzeko eta arazteko zerbitzuak ematek dator.

lido horretatik, udalei zerbitzu horiek emateagatik aurreikusitako sarreren guztizkoa honela lortzen da: hornidura-kuota finkoa aplikatuzetik esleitutako emariari (2.200 l/s/urte); saneamendu- eta arazketa-kuota finkoak aplikatuzetik saneamendu unitarioa duen azalerari (1.538,75 ha); eta tarifaren kuota aldakorrek aplikatuzetik 2021ean hornituko eta bildu eta araztuko direla zenbatetsitako ur bolumenei. Bolumen horiek, hurrenez hurren, 24,5 milioi m³ eta 25,8 milioi m³ dira (ikus "Tarifa-proposamenaren azterketa").

Kide diren udalentsako tarifaren laburpena honako hau da (BEZa kanpo):

Kontzeptua	Neurri-unitateak	Tarifa
Hornikuntza-tarifa:		
Kuota finkoa	€/l/s/urte	763,9581
Kuota aldakorra	€-zentimo hornitutako m ³ -ko	20,1184
Saneamendu-tarifa:		
Kuota finkoa	€ azalera urbanizatuko ha-ko	1.084,7663
Kuota aldakorra	€-zentimo bildutako m ³ -ko	13,2268
Arazketa-tarifa:		
Kuota finkoa	€ azalera urbanizatuko ha-ko	1.189,6013
Kuota aldakorra	€-zentimo bildutako m ³ -ko	10,2459
Inbertsioen finantzaketa	€/l/s/urte	0,0000

Bestalde, gainerako sarrerak etxeok ez diren erabiltzaile bereziei emandako saneamendu- eta arazketa-zerbitzuetatik datoz eta bi motatakoak dira:

- Batetik, Añarbeko saneamendu-sistema orokorretik datozenak: sarrerak kalkulatzeko, saneamendu eta arazketako termino aldakorrei —hurrenez hurren, 4,0 milioi m³-ri eta 6,6 milioi m³-ri aplikatuak— dagozkien termino finkoak gehitzen zaizkie: 285,5808 € eta 354,8183 € erabiltzaileak isuri dezakeen l/s bakoitzeko.
- Bestetik, Urumearen sistema erdiautonomotik datozenak: sarrerak kalkulatu dira 6,5068 €-zentimo/m³-ko saneamenduko termino aldakor bat aplikatuta 6,5 milioi m³-tan balioetsitako bolumenari.

Langile-gastuak

Sozietateko langileen ordainsarien, enpresak ordaindu beharreko Gizarte Segurantzako kuoten eta beste hainbat gastu sozialen aurreikuspena.

AUSAren Hitzarmen Kolektiboak finkatzen badu ere langileen ordainsariak aldatu beharko direla Donostiako Udaleko langileenak aldatzen diren baldintza beretan, eta, hortaz, udal horretan erabakitzen denari jarraitu beharko bazaio ere, 2021eko ekitaldirako langile-gastuen zenbatespenak egin dira Gobernuak funtzionarioentzat berriki iragarritako % 0,9ko igoera aplikatuko dela suposatuta.

Halaber, kontuan hartu dira AUSAko plantillari dagokionez, txanda-kontratuak direla eta, dagoeneko egindako eta etorkizunean egingo diren mugimenduen eragin ekonomikoak.

Azpiegiturak konpontzea, mantentzea eta kontserbatzea

Sozietatearen jabetzako ondasunetan edo Mankomunitatearen edo Sozietateari atxikitako udal mankomunatuen jabetzakoetan aurreikusitako ekintzetan zenbatetsitako kostua, ekintza horiek ondasunen bizitza erabilgarria luzatzen ez dutenean.

Energia-kontsumoa

Sozietateak kudeatzen dituen instalazioen energia-kontsumoak sortzen duen gastua adierazten da atal honetan. Instalazio horien artean nabarmentzen da Loiolako HUA, duen energia-kontsumo handiagatik.

Epigrafe honetan, 2021eko ekitaldirako, 2020rako aurrekontuan jasotakoa baino gastu txikiagoa espero da. Ildo horretatik, energia elektrikoari lotutako gastuen 2020ko ekitaldirako aurreikuspenetan egin ziren 55 €/MWh-ko batez besteko merkatu-prezinoa aintzat hartuta. 2021erako energia elektrikoaren prezioaren egungo kotizazioa, berriz, 45 €/MWh ingurukoa da. Horregatik, eta kontuan hartuta espero den energia elektrikoaren kontsumoa 2020rako aurreikusitakoaren antzekoa dela, gastu baxuagoa aurreikusten da 2021erako: 212 mila € inguru txikiagoa 2020rako aurreikusitakoa baino.

Horrez gain, energia termikoaren kontsumoari dagokionez (AUSAk GECASA bere sozietate partaidetuari erosten dion energia, horrek merkatuko gas naturala une bakoitzean erosten duen prezioan), 2020rako aurreikusitakoa baino kostu txikiagoa espero da. Ildo horretatik, eta 2020rako aurreikuspenak egiteko gas naturalaren 26 €/MWh-ko batez besteko prezioa kontuan hartu bazen ere, 2021erako aurreikusitako batez besteko prezioa 16 €/MWh-koa da. Alde horrek, 2021erako kontsumo-aurreikuspena kontuan hartuta, berekin ekarri du 2020rako aurreikusitakoa baino gastu 296 mila € txikiagoa zenbatestea kontzeptu hori dela eta.

Horrenbestez, energiaren kostuak 508 mila € inguru (% 15) behera egingo duela espero da.

Erreaktiboan eta laborategirako materialaren hornidura

Petritegi EUTEn urtegiko ur gordina tratatzen da, eta Loiola HUAn saneamendu sareetan jasotako ura. Atal honetan, tratamendu horietarako beharrezkoak diren erreaktibo eta produktu kimikoen hornikuntzaren gastua adierazten da. Laborategietan edateko uren eta hondakin-uren beharrezko analisiak egiteko behar den materiala eskuratzeko gastua ere adierazten da.

Edateko ura arazteko prozesurako erreaktiboan dagokienez, 2021erako azido fluosilizikoaren (fluorra deitu ohi zaio) dosifikazioa ezabatzearen eragina aurreikusi da, eta horrek, gainerako erreaktiboan kontsumoan izango diren aldaketekin batera, 67 mila €-ko aurrezpena ekarriko du.

Aitzitik, hondakin-urak arazteko prozesuan erreaktibo berri bat, aluminio polikloruroa, sartzeko beharra ikusi da. Erreaktibo horrek harizpiak sortzea saihesten du, dekantazioa eta, ondorioz, HUAko irteerako efluentearen kalitatea hobetuta. Konposatu berri horren ondoriozko kostuak gora egin duenez, eta hondakin-urak arazteko gainerako erreaktiboan kontsumoan aldaketa batzuk egin direnez, aurrekontu-esleipena 182 mila € handitu beharra dago.

Aseguruak

Barne hartzen ditu, besteak beste, Sozietatearen erantzukizun zibileko eta ingurumen-erantzukizun zibileko kontingentziak eta kalte materialak estaltzeko kontratatutako polizen

primak, bai beste erakunde batzuek atxikitako ondasunenak, bai sozietatearenak. Era berean, Sozietatearen administratzaileen bizitza-aseguruen eta erantzukizun zibileko aseguruaren polizetatik eratorritako gastuak biltzen ditu barne.

Tributuak

Sozietateak ordaindu behar dituen zerga-izaerako gastuak biltzen ditu atal honek. Horien artean, aipatzekoak dira, lehenik eta behin, azken ekitaldian ordaindu izan direnak: Uraren Euskal Agentziaren lehorretik itsasorako isurketen kanona, ekonomia-jardueren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga, etab.

Aurrekoez gainera, 2021eko ekitaldian uraren kanona izenekoarekin lotutako oso berrikuntza garrantzitsu bat izango da. EAEn aplikatu beharreko uraren egungo kanona jasota dago Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean (araudi autonomikoa) eta Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko-finantzarioaren Araudia onartzen duen azaroaren 4ko 181/2008 Dekretuan.

Jakina denez, kanon horren kudeaketa, orain arte, uraren behe-hornidura kudeatzen duten erakundeen laguntzarekin egin da (Añarben, udalak dira kudeatzaileak). Erakunde horiek Uraren Euskal Agentziaren izenean kanona bildu behar dute erabiltzaile jakin batzuegandik (batez ere, etxeok ez direnengandik), 6 €/zentimo/m³-tan, gero Agentziari ordaintzeko.

Hori guztia horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legeak (abenduaren 31ko «EHAA») kanon horren erregulazioa aldatu zuen, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, eta, Añarberi dagokionez, honako berritasun hauek sartu zituen:

- Zergapeko egitatea izango da edozein jatorritako uren bilgunetatik datorren uraren erabilera edo kontsumoa (benetakoa edo potentziala). Indarrean dagoen araudian, berriz, ezartzen da zergapeko egitatea erabiltzaileari hornitutako ura kontsumitzea dela. Hau da, filosofia aldatu egiten da, eta azken erabiltzailearen aldetik kontsumoa zergapetzetik kontsumoa jatorrian zergapetzera pasatzen da.
- Karga-tasari dagokionez, 6 €/zentimo/m³ izatetik 3 €/zentimo/m³ izatera igaroko da.

Ikus daitekeenez, Añarbe pasatuko da inolako zenbatekorik ez ordaintzetik kontzeptu horren ondorioz (orain arteko subjektu pasiboa uraren azken kontsumitzailea baita), 785 mila € inguru ordaintzera (izan ere, 2021etik aurrera, subjektu pasiboa izango da ura jatorrian ateratzen duena). 2021erako aurreikuspenetan, jakina, gastu berri horri aurre egiteko behar besteko aurrekontu-esleipena jaso behar izan da.

Beste enpresa batzuek egindako lanak

Funtsean, azpiegitura osatzen duten instalazioak ustiatu eta mantentzeko zerbitzuek sortzen dituzten gastuak hartzen ditu. Instalazio horien artean daude Añarbeko urtegia, EUTEa, biltegiak, ponpatze-estazioak, HUA, etab.

Joan den ekainaren 14an, indarrean jarri zen AUSAk kudeatzen duen azpiegitura ustiatu eta mantentzeko egungo kontratua. Horren adjudikazioduna GOMENSL – ANSAREO INFRAESTRUCTURAS ABEEa izan zen.

Kontratuaren adjudikaziodunak egindako eskaintzatik 5.263 mila €-ko kostua eratorriko da 2021eko ekitaldirako, hau da, 180 mila € handiagoa 2020rako aurrekontuan jasotakoa baino.

Finantza-gastuak

Atal honek biltzen ditu indarrean dauden maileguen polizetan eta kredituan ezarritako klausulen arabera finantza-erakundeei ordainduko zaizkien finantza-gastuak. Horiei gehitzen zaizkio, hala badagokio, aurrekontua egiten den ekitaldian hainbat inbertsio finantzatzeko formalizatu beharreko maileguen interesak.

Inbertsioak

Gehitutako inbertsioen xedea da, zerbitzuak altan egiteko hornidura- eta saneamendu-azpiegitura osoa modu egokian eraikitzea, kontserbatzea eta ustiatzea eta, dagokionean, handitzea. Ildo horretatik, dokumentu honen dagokion eranskinean xehetasun osoz azaltzen da 2021erako aurreikusitako jarduketaren helburua.

Zorpetze-amortizazioak

Atal honetan biltzen da inbertsioak finantzatzeko formalizatutako eta erabilitako mailegu-eragiketen amortizazioetarako aurreikuspena.

3. Kapitulukako laburpena

Aurrekontua osatzen duten aurreikuspenak eta kredituak beren jatorri ekonomikoaren arabera antolatuta daude, indarrean dagoen aurrekontu-sailkapenaren arabera. Honako hau da kapitulukako laburpena:

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
3	Tarifak eta bestelako sarrerak	18.621.856
5	Ondare-sarrerak	569.901
7	Kapital-transferentziak	733.538
8	Finantza-aktiboak	2.515.336
9	Finantza-pasiboak	1.600.792
Sarrerren egoera-orria guztira		24.041.423

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kapitulua	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
1	Langile-gastuak	2.392.357
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	12.346.327
3	Finantza-gastuak	13.890
6	Inbertsio errealak	8.891.929
9	Finantza-pasiboak	396.920
Gastuen egoera-orria guztira		24.041.423

4. Kontu-sailkako xehetasuna

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
300.00	Lohi lehorraren salmenta	90.000
300.01	Biogas-salmenta	219.878
310.02	Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei saneamendu-zerbitzua ematea	1.055.166
310.02	Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei arazketa-zerbitzua ematea	807.277
343.01	Udalei hornidura-zerbitzuak ematea	6.609.716
343.02	Udalei saneamendu-zerbitzuak ematea	5.081.699
343.03	Udalei arazketa-zerbitzuak ematea	4.473.941
399.01	Bestelako sarrerak	284.179
III. kapitulua guztira		18.621.856
531.00	GECASAREN dibidenduak	500.000
540.00	Alokairuak	69.901
V. kapitulua guztira		569.901
720.00	GFA: Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea	175.000
721.00	AUMA: HUAn biltegi berria, hondakinentzako "garbigunea", aparkalekua eta sarrera- eta kontrol-ataria eraikitzea	350.000
722.00	Urnietako Udala: Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea	208.538
VII. kapitulua guztira		733.538
880.00	Aurrekontua berdintzeko eragiketak	2.515.336
VIII. kapitulua guztira		2.515.336
933.00	Tokiko sektore publikotik kanpo jasotako epe luzeko maileguak	1.600.792
IX. kapitulua guztira		1.600.792
Sarrerren egoera-orria guztira		24.041.423

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
130.00	Langile lan-kontratudunak	1.894.138
160.01	Gizarte Segurantzako kuotak	463.729
160.04	Geroa kuotak	27.685
160.05	Asistentzia mediko-farmazeutikoa	2.808
163.05	Bestelako gastu sozialak	3.997
I. kapitulua		2.392.357
20	Alokairuak	
202.00	Birmineralizazio-zisternak	31.394
21	Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa (KMK)	
212.00	Makinen, instalazioen eta tresnen KMK	786.847
213.00	Garraio-materialaren KMK	7.500
22	Materiala, hornigaiak eta bestelakoak	
220.01	Bulegoko materiala, inbentarioan sar ez daitekeena	19.000
220.02	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak	17.782
221.01	Energia elektrikoa	2.266.350
221.02	Ura	58.331
221.03	Energia termikoa	632.232
221.04	Erregaiak eta karburagaiak	9.450
221.09	Garbiketako eta garbitasuneko produktuak	500
221.98	Bestelako hornigaiak – Erreaktiboak	1.060.600
221.99	Bestelako hornigaiak – Laborategiko materiala	215.000
222.00	Komunikazioak	83.447
224.02	Ibilgailuen aseguru-primak	7.571

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
224.03	Kudeatutako azpiegituren aseguru-primak	138.376
224.99	Bestelako arriskuak	34.415
225.01	Udal-tributuak	65.354
225.02	Lurralde historikoko tributuak	6.700
225.03	Erkidegoko tributuak	897.590
225.04	Estatuko tributuak	86.141
226.03	Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	66.000
226.04	Gastu juridikoak	70.000
226.99	Beste hainbat gastu	241.612
227.01	Garbiketa	28.472
227.07	Ikerketak eta lan teknikoak	217.332
227.99	Azpiegiturak ustiatzeko eta mantentzeko kontrata	5.263.048
23	Zerbitzugintzaren ondoriozko kalte-ordainak	
230.00	Langileen dietak, lokomozioa eta joan-etorriak	32.303
231.00	Kontseiluaren eta Batzordearen dietak eta gastuak	2.980
II. kapitulua guztira		12.346.327
312.01	Epe luzeko zorraren interesak	13.890
III. kapitulua guztira		13.890
62	Inbertsioak azpiegituretan	
	Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hedatzeko obra partekatuetan	
629.01	Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea	718.624
629.02	Papresa paper-fabrikako lurreko hustubidearen obrak	1.500.000
629.03	Urumea ibaia bideratzeko obrak – 2. fasea	424.061

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
629.04	Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak – 1. eta 2. faseak	400.000
629.05	Pasai Donibaneren saneamendua	25.000
629.06	Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiako badiaren ingurunean (Donostia)	25.000
629.07	Anoetako ibarraren saneamendua – 1. fasea	25.000
	Inbertsioak Mankomunitatearen/AUSAren ekimeneko obra berrietan	
629.08	AHIBEP – Hornidura-azpiegiturak birgaitzea	150.000
629.09	AHIBEP – Hornidura-azpiegiturak birgaitzea: EUBB, Oiamar eta Armuntto	10.000
629.10	Lezoko udalerrian altako hornidura-sistema hobetzea	150.000
629.11	Añarbeko presaren Larrialdietako Plana ezartzea	202.774
629.12	AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: HUPE, Florida	319.162
629.13	AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: Herrerako HUPEko bulkada-hodia birgaitzea – 1. fasea	216.283
629.14	AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: Birgaitzeko obrak, ponpatze-ganberaren haustura, iriste-obra, Loiolako HUAn	70.000
629.15	AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: Herrerako HUPEko bulkada-hodia birgaitzea – 2. fasea	900.000
629.16	AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea	150.000
629.17	HUAn biltegi berria, hondakinentzako “garbigunea” eta sarrera- eta kontrol-ataria eraikitzea (2)	350.000
629.18	Lurreko hustubideko bypass, Herrerako kolektorea	200.000
629.19	Hornidura-obra txikiak	25.000
629.20	Saneamendu-obra txikiak	25.000
629.21	Hornidura-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	25.000

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Zenbatekoa (€-tan)
629.22	Hornidurako azterlan eta proiektuak idaztea	124.070
629.23	Saneamendu-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	25.000
629.24	Saneamenduko azterlan eta proiektuak idaztea	185.260
629.25	Hainbat obratarako lurzorua kudeatzea	281.780
	Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak	
629.91	Inbertsioak Horniduraren Ustiatzeko Arloan	673.000
629.92	Inbertsioak Administrazio Arloan	205.000
629.93	Inbertsioak Kalitatea Kontrolatzeko Arloan	20.000
629.94	Inbertsioak Saneamendua Ustiatzeko Arloan	1.466.915
	VI. kapitulua guztira	8.891.929
933.00	Barnekoak, Sektore Publikotik kanpo	396.920
	IX. kapitulua guztira	396.920
	Gastuen egoera-orria guztira	24.041.423

5. Konpromiso-kredituen xehetasuna (zenbatekoak €-tan)

Deskribapena	20.12.31ra arte aurreikusitako gauzatzea	2021ean aurreikusitako gehitzea (2)	Ekitaldiko aurrekontua				
			2021	2022	2023	2024	2025
Papresa paper-fabrikako lurreko hustubidearen (PPLH) obrak	0	0	1.500.000	1.500.000	0	0	0
Urumea ibaia bideratzeko obrak – 2. fasea (1)	300.000	0	424.061	0	0	0	0
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak – 1. eta 2. faseak (1)	0	400.000	0	700.000	81.818	0	0
Pasai Donibaneko saneamendua (1)	0	25.000	0	100.000	150.000	125.826	0
Gainezkabideak birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiaiko badiaren ingurunean (Donostia) (1)	0	25.000	0	200.000	539.463	0	0
Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea	52.276	0	718.624	1.100.000	1.100.000	380.000	0
Lezo udalerriko hornidura-sistema hobetzea (1)	0	0	150.000	600.000	800.000	800.000	800.000
HUAn biltegi berria, hondakinentzako "garbigunea", sarrera-ataria eta aparkalekua eraikitzea (2)	1.078.362	0	350.000	0	0	0	0
Anoetako ibarraren saneamendua – 1. fasea (1)	0	25.000	0	373.636	200.000	0	0
Konpromiso-kredituak guztira	1.430.638	475.000	3.142.685	4.573.636	2.871.281	1.305.826	800.000
Kanpoko finantzaketa			733.538	75.504	75.504	0	0
Kanpoko finantzaketarik gabeko konpromisoak	1.430.638	475.000	2.409.147	4.498.132	2.795.777	1.305.826	800.000
2019ko sarrera arrunten gaineko % (19.686.462 €)			12%	23%	14%	7%	4%

(1) Hainbat erakunderekin batera finantzatzeko jarduketak. Taula honetan ageri diren zenbatekoak AUSAren ekarpenei dagozkie.

(2) Añarbeko Uren Mankomunitatearen ekarpenekin (1.350.000 €) zati batean finantzatzeko jarduketa.

6. Gastu arrunteko kapituluaren banakapena jardueren arabera

Kapitulua	HO	SA	AR	Guztira
Langile-gastuak	1.007.056	875.070	510.231	2.392.357
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	4.051.798	2.620.270	5.674.259	12.346.327
-Alokairuak	31.394	0	0	31.394
-Konponketak eta mantentze-lanak	195.983	223.867	374.497	794.347
-Hornidurak	894.118	634.894	2.750.233	4.279.245
-Komunikazioak	30.576	32.804	20.067	83.447
-Aseguru-primak	59.789	66.933	53.640	180.362
-Tributuak	853.550	173.600	28.635	1.055.785
-Hainbat gastu	92.414	107.083	178.115	377.612
-Beste enpresa batzuek egindako lanak (kontrata)	1.800.494	1.285.598	2.176.956	5.263.048
-Beste enpresa batzuek egindako lanak	81.064	81.913	82.827	245.804
-Kontseiluaren eta langileen dietak eta gastuak	12.416	13.578	9.289	35.283
Finantza-gastuak	5.058	5.411	3.421	13.890
Guztira	5.063.912	3.500.751	6.187.911	14.752.574

7. Inbertsioen eranskina

AUSAREN eginkizunetako bat da beharrezko inbertsioak egitea Mankomunitateak emakida-tituluaren ondorioz bere esku dituen baliabide hidraulikoen erabilera eraginkor eta egokiena bermatzeko. Horretarako, bere ardurako eta beharrezkotzat jotzen diren hornidura- eta saneamendu-egitura guztien eraikuntza, mantentze eta ustiatze aproposa bermatuko du eta inbertsioak egingo ditu ere edateko ura hornitzeko eta hondakin- eta euri-uren goi-saneamenduko zerbitzua ahalik eta baldintza onenetan eman dadin, ingurumenaren eta Mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrietako biztanleen beharren mesedetan.

Hala, azken urteotan egin diren eta datorren 2021. urtean ere errepikatuko diren inbertsioen xedea da, batik bat, Mankomunitatearen/AUSAREN titulartasuneko hornidurako eta goi-saneamenduko azpiegitura hidraulikoa zabaltzea, modernizatzea, birgaitzea eta hobetzea.

Gauzak horrela, 2021eko ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak ikus daitezke jarraian. Inbertsio horiek jarduketa berriak zein 2020ko aurrekontuan dagoeneko jasotako eta 2021ean beren gauzatzea luzatua izango duten jarduketak hartzen dituzte barne (zenbateko guztiak €-tan daude, BEZa kanpo):

7.1. Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaltzeko obra partekatuetan

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2020ko aurrekontua	2021	Guztira

1 Hornidurako jarduketa partekatutak	18.624	700.000	718.624
Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea (1)	18.624	700.000	718.624
2 Saneamenduko jarduketa partekatutak	475.000	1.924.061	2.399.061
Papresa paper-fabrikako lurreko hustubidea (PPLH) eraikitzea (2)	0	1.500.000	1.500.000
Urumea ibaia bideratzeko obrak – 2. fasea (7)	0	424.061	424.061
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak – 1. eta 2. faseak (3) (7)	400.000	0	400.000
Pasai Donibaneko saneamendua (4) (7)	25.000	0	25.000
Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiako badiaren ingurunean (Donostia) (5) (7)	25.000	0	25.000
Anoetako ibarraren saneamendua – 1. fasea (6) (7)	25.000	0	25.000
Partekatutako obrak guztira	493.624	2.624.061	3.117.685

- (1) Jarduketak 2.580.000 € gehiago beharko ditu 2022 eta 2024 bitartean
(2) Jarduketak 1.500.000 € gehiago beharko ditu 2022an
(3) Jarduketak 781.818 € gehiago beharko ditu 2022 eta 2023 bitartean
(4) Jarduketak 375.826 € gehiago beharko ditu 2022 eta 2024 bitartean
(5) Jarduketak 739.463 € gehiago beharko ditu 2022 eta 2023 bitartean
(6) Jarduketak 573.636 € gehiago beharko ditu 2022 eta 2023 bitartean
(7) Taula honetan ageri diren zenbatekoak AUSaren ekarpenei dagozkie.

7.2. Inbertsioak Mankomunitatearen/AUSaren ekimeneko obra berrietan

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2020ko aurrekontua	2021	Guztira
1 Hornidura	160.000	352.774	512.774
1.1 AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berrizatzeko plana garatzeko jarduketak	160.000	0	160.000
AHIBEP – Hornidura-azpiegiturak birgaitzea	150.000	0	150.000
AHIBEP – Hornidura-azpiegiturak birgaitzea: EUBB, Oiamar eta Armuntto	10.000	0	10.000
1.2 1.2. Bestelako jarduketak	0	352.774	352.774
Lezoko udalerrian altako hornidura-sistema hobetzea (1)	0	150.000	150.000
Añarbeko presaren Larrialdietako Plana ezartzea	0	202.774	202.774
2 Saneamendua	1.155.445	1.050.000	2.205.445
2.1 AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berrizatzeko plana garatzeko jarduketak	605.445	1.050.000	1.655.445
AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: HUPE, Florida	319.162	0	319.162
AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: Herrerako HUPEko bulkada-hodia birgaitzea – 1. fasea	216.283	0	216.283
AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: Birgaitzeko obrak, ponpatze-ganberaren haustura, iriste-obra, Loiolako HUAN	70.000	0	70.000
AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea: Herrerako HUPEko bulkada-hodia birgaitzea – 2. fasea	0	900.000	900.000
AHIBEP – Saneamendu-azpiegiturak birgaitzea	0	150.000	150.000
2.2 Bestelako jarduketak	550.000	0	550.000
HUAN biltegi berria, hondakinentzako “garbigunea” eta sarrera- eta kontrol-ataria eraikitzea (2)	350.000	0	350.000
Lurreko hustubideko bypass, Herrerako kolektorea	200.000	0	200.000
3 Obra txikiak	0	50.000	50.000
3.1 Hornidura	0	25.000	25.000
3.2 Saneamendua	0	25.000	25.000

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2020ko aurrekontua	2021	Guztira
4 Azterlanak, proiektuak eta bestelakoak idaztea	125.832	233.498	359.330
4.1 Hornidura	61.670	87.400	149.070
HOKo obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	0	25.000	25.000
2021-22 proiektu-zorroa	0	25.000	25.000
Lezoko udalerriko uraren hornidura-sistema hobetzea	53.000	20.000	73.000
Santa Barbarako EUBBtik Hernanirako hornidura optimizatzeko sistamarako proiektua	8.670	17.400	26.070
4.2 Saneamendua	64.162	146.098	210.260
SAko obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	0	25.000	25.000
2021-22 proiektu-zorroa	0	30.000	30.000
Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiake badiaren ingurunean: Trintxerpe, Gomistegi eta Bidebieta	39.062	74.308	113.370
Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiake badiaren ingurunean: Jose Elosegiko gainezkabidea	10.200	16.790	26.990
Saneamenduko kolektore handietarako sarbideak egokitzeko proiektua	14.900	0	14.900
5 Obrak egikaritzeko lurzoruaren kudeaketa	0	281.780	281.780
Hainbat obratarako lurzoruaren kudeaketa	0	10.000	10.000
Urnieta hornitzeko lurzoruaren kudeaketa	0	271.780	271.780
Mankomunitatearen/AUSAren obra berriak guztira	1.441.277	1.968.052	3.409.329

(1) Jarduketak 3.000.000 € gehiago beharko ditu 2022 eta 2025 bitartean

(2) Añarbeko Uren Mankomunitateak zati batean diruz lagundutako jarduketa

7.3. Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2020ko aurrekontua	2021	Guztira
1 Hornidura Arloa	0	673.000	673.000
1.1 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE	0	438.000	438.000
Laneko segurtasun eta osasunerako ekipo eta sistemak	0	10.000	10.000
Prozesua kontrolatzeko ekipo eta sistemak	0	5.000	5.000
Kloroa dosifikatzeko ekipo berriak instalatzea eta legezkatzea	0	320.000	320.000
Kontrolako, ozonoko, iragazketako eta birmineralizazio-erakinen barruko argiteria ordezkatzea	0	40.000	40.000
Instalazioko irteera-biltegiko armairu elektrikoa ordezkatzea	0	35.000	35.000
Hauspo-biltegitik birmineralizazio-kutxatilarako hodia bikoitzea	0	18.000	18.000
Fluor-instalazioak ezabatzea	0	10.000	10.000
1.2 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak	0	190.000	190.000
Hornidura-sistemaren instalazioetarako teleaginteko urruneko berriak	0	60.000	60.000
Oiamarko behin-behineko EUPEa (eragintza, GE, urrunekoa)	0	40.000	40.000
Amarako EUPEa: ponpetako baten maiztasun-aldagailua ordezkatzea eta PLCarekin zuntz bidez komunikatzea	0	30.000	30.000
LED argietara aldatzea biltegi eta ponpetan	0	30.000	30.000
Amarako EUPEa. Insonorizazio-lanak: sarrerako ate akustiko berria eta ponpak	0	15.000	15.000
Monseko EUBBa. Insonorizazio-lanak: sarrerako ate akustiko berria eta ur-sarrera	0	15.000	15.000
1.3 Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa	0	45.000	45.000
Galerien arteko fibrozementuzko barne-zorrotena ordezkatzea	0	20.000	20.000
Hiru dimentsioko 14 juntura-neurgailu muntatzea 145. galerian	0	15.000	15.000
Pista perimetraleko goiko sarrera-ateak TZI bidez kontrolatzea	0	10.000	10.000
2 Administrazio Arloa	0	205.000	205.000
Altzariak, tresnak eta beharrezko beste gauza batzuk erostea	0	5.000	5.000
Segurtasun-sistemak ezartzea HO eta SA arloetan	0	50.000	50.000
Ekipo informatikoak	0	20.000	20.000
Enpresa-kudeaketarako softwarea	0	100.000	100.000
Sozietatearen webgunea garatzea	0	10.000	10.000
Ingurumeneko hezkuntza eta dibulgaziorako sistema eta materialak	0	20.000	20.000
3 Kalitatea Kontrolatzeko Arloa	0	20.000	20.000
3.1 Edateko uren laborategirako material eta ekipoak erostea	0	10.000	10.000
Hainbat ekipo erostea	0	10.000	10.000
3.2 Hondakin-uren laborategirako material eta ekipoak erostea	0	10.000	10.000
Hainbat ekipo erostea	0	10.000	10.000
4 Saneamendu Arloa	540.040	926.875	1.466.915
4.1 Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA	540.040	589.675	1.129.715
Ponpa zentrifugoak hornitzea, instalatzea eta mantentzea deshidratazioko eraikinean	540.040	0	540.040
Digestoretik tanpoi-biltegitara elikatze hodiak aldatzea	0	100.000	100.000
SCADA kudeatzeko plan estrategikoa	0	80.000	80.000
Lehorketa termikoko errota ordezkatzea	0	55.500	55.500
Helmuga-obrako putzuetako xurgatze-hodia aldatzea	0	55.000	55.000

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2020ko aurrekontua	2021	Guztira
Harea kentzeko makinen ponpa autoxurgatzaileak hornitzea eta instalatzea	0	52.000	52.000
Lehorketa termikoko kondentsadorea ordezkatzeta	0	50.000	50.000
Digestorearen barruko jarduketak	0	50.000	50.000
Lehorketa termikoko zerbitzurako ur-ponpak hornitzea eta instalatzea	0	40.000	40.000
LAP-2021 ekintza-plana	0	30.000	30.000
Loiolako HUAko dokumentazio elektrikoa Eplan-en digitalizatzea (I. fasea)	0	30.000	30.000
Biltegitratze-siloetarako hautsa xurgatzeko sistema bat hornitzea eta instalatzea	0	18.675	18.675
Lohi lehorraren tenperatura eta hezetasuna neurtzeko ekipoa hornitzea	0	16.500	16.500
Zentrifugagailuen bypassa egiteko konporta automatizatuak hornitzea eta instalatzea	0	7.000	7.000
HUAren SCADArako 10 kVA-ko UPS bat hornitzea eta instalatzea	0	5.000	5.000
4.2 Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak	0	337.200	337.200
Laneko segurtasun eta osasunerako ekipoa eta sistemak	0	30.000	30.000
Ibaetako HUPeko kaxa elektrikoak egokitzea	0	250.000	250.000
Monpaseko urpeko hustubidearen anodo galvanikoetan jardutea	0	28.000	28.000
Errenteriako HUPeko unitate elektrogenoaren estalkia	0	15.000	15.000
Eroankortasun-neurgailuak hornitzea eta saneamendu-sarean jartzea	0	14.200	14.200
Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak guztira	540.040	1.824.875	2.364.915

7.4. Inbertsioak guztira

Inbertsio mota	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2020ko aurrekontua	2021	Guztira
Inbertsioak azpiegitura zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan	493.624	2.624.061	3.117.685
Mankomunitatearen/AUSAren obra berriak	1.441.277	1.968.052	3.409.329
Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak	540.040	1.824.875	2.364.915
Guztira	2.474.941	6.416.988	8.891.929

7.5. Inbertsioen memoria

7.5.1 Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan

* Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-horniduran sartzea

Jarduketa honen helburua da gaur egun sistema propioen bidez hornitzen diren Urnietako zonak —horretarako, udalerriko ur-harguneak eta Oiamar, Goikoetxe, Armuntto eta Lizarratxoeko biltegiak erabiltzen dira— Añarbe sistematik datorren uraz hornitzea.

Proiektua tramitazio administratiboko fasean dagoenez, aurreikusi da hura 2021eko lehen seihilekoan lizitatzea eta bigarren seihilekorako gauzatzen hastea.

Obren osotasunak inbertsio handia eskatzen duenez —3.300.000 € ingurukoa izango da—, jarduketa hau 718.624 €-rekin zuzkitu da 2021erako, eta beste 2.580.000 €-rekin 2022-2024 aldirako.

*** Papresa paper-fabrikako lurreko hustubidea (PPLH) eraikitzea**

Proiektu honek lurreko hustubide bat eraikitzeko beharrezkoak diren jarduketak zehazten ditu PAPRESA paper-fabrikak sortutako efluenteak itsasotik bereiz garraiatu ahal izateko. Efluenteak, hasiera batean, Oiartzun ibaiaren eskuineko ertzetik joango dira, ondoren Pasaiaiko portua zeharkatuko dute, Herrerako geltokitik igaroz, eta, azkenik, Herrera-Loiola trenbide-tunelean zehar joango dira, Monpaseko lurreko hustubidearen karga-ganberara iritsi arte. Bertatik itsasorako bideari jarraituko diote Loiolako HUAren efluentearekin batera. Horrela, efluenteak HUAtik igarotzea saihesten da, eta, beraz, haren gaineko eraginak.

Planteamendu horrek eskatuko du aipatutako enpresak bere efluenteak araztea ditu bere faktorian bertan, horrela, ingurumen-agintaritzak eskudunak eskatutako mailak betetzeko. Hori guztia gauzatzeko baldintzak 2019ko apirilaren 29an horretarako sinatutako hitzarmenean berretsi ziren.

AUSAko Administrazio Kontseiluak 2019ko uztailaren 24an onartu zuen hasieran PPLHaren lizitazioa. Ondoren, espedientearen ingurumen-tramitazioa osatze aldera, AUSAko Kontseiluak lizitazioan atzera gitea onartu zuen.

Gaur egun, proiektua tramitazio administratiboko fasean dagoenez portuko agintaritzan (dagokion emakida administratiboa aldatzeko), aurreikusita dago 2020. urtearen amaiera aldean lizitatzea eta lehen seihilekoan gauzatzen hastea.

Jarduketa honek 1.500.000 €-ko zuzkidura du 2021erako, eta beste 1.500.000 €-koa 2022rako.

*** Finantzaketa partekatua duten bestelako jarduketak**

Jarduketa batzuk sinatutako hitzarmenetan sartuta daude, eta beste batzuk aurki sinatuko dituzte Uraren Euskal Agentziak eta hitzarmenean sartuta dauden zenbait erakunde publikok (besteak beste, Añarbeko Uren Mankomunitateak, AUSAren bitartez).

Honako hau da jarduketa horietarako 2021erako aurreikusi diren zuzkiduren banakapena (beren zenbatekoa 899.061 €-koa da, guztira):

Urumea ibaia bideratzeko obrak – 2. fasea (*)	424.061 €
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak – 1. eta 2. faseak (*)	400.000 €

Pasai Donibaneren saneamendua	25.000 €
Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiako badiaren ingurunean (Donostia)	25.000 €
Anoetako ibarraren saneamendu-obrak – 1. fasea	25.000 €

(*) Sinatutako hitzarmenak

Dokumentu honen 5. atalean ikus daitekeenez, jarduketa hauei lotutako aurrekontu-esleipenak aurreikusi dira ere 2022ko eta ondorengo ekitaldietarako (2.769.794 €-ko zenbatekoaz, guztira):

Usurbilgo Aginaga auzoko saneamendu-obrak – 1. eta 2. faseak	781.818 €
Pasai Donibaneren saneamendua	375.826 €
Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiako badiaren ingurunean (Donostia)	739.463 €
Anoetako ibarraren saneamendu-obrak – 1. fasea	573.636 €

7.5.2 Inbertsioak Mankomunitatearen/AUSAren ekimeneko obra berrietan

Hornidura

AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berrizatzeko plana garatzeko jardunak

Jarduketa hauek berebiziko garrantzia dute azpiegituren balio-bizitza luzatzeko beren funtzionamendu-baldintza egokiak mantendu eta denboraren iragaitearen ondoriozko narriadura eta, azken batean, saihestezina den haien higadurari lotutako galmena saihesten baitute.

150.000 € hornitzen dira Hornidura Arloan azpiegitura hidraulikoak birgaitzeko hainbat jarduketatarako, eta 10.000 € gehiago jarduketa jakin baterako, hots: Oiamar eta Armuntto EUBBak berritzea.

Bestelako jarduketak

* Lezoko udalerriko uraren hornidura-sistema hobetzea

Jarduketa honen xedea da egun Lezoko Udalak kudeatzen dituen tokiko zenbait hornidura-sistema (Amesti, Monatxo, Elortegi eta Arriandi) Añarbeko sistemaren (Petritegiko EUTEa – Darietako EUBBa) bitartez hornitzeko aukera izateko beharrezkoak diren lanak zehaztea.

Jarduketa honetarako zuzkidura 150.000 €-koa da datorren 2021eko ekitaldirako, eta beste 3.000.000 €-koa 2021-2024 aldirako.

* Añarbeko presaren Larrialdietako Plana ezartzea

Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Presa eta Urtegien Segurtagarri buruzko Erregelamendu Teknikoa betez, Añarbeko Presaren Larrialdietako Plana ezarri beharra dago. Ministerioak 2019. urtean onartu zuen plana, tramitazio-prozesu luze baten ondoren. Hori dela eta, planak dioena garatzeko, horretan jasotako obra eta proposamenei ekin beharra dago. 2021erako, soinuak oharpen-gailuak (sirenak) Urumea ibaiaren ibilguan zehar, Ereñotzuraino, instalatzea aurreikusita da.

Jarduketaren zenbatekoa 202.774 € da.

Saneamendua

AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berrizatzeko plana garatzeko jarduketak

Arestian aipatu bezala, jarduketa hauek berebiziko garrantzia dute hornidurako zein saneamenduko azpiegituren balio-bizitza luzatzeko. Saneamenduko azpiegituren kasuan, besteak beste, honako obra hauek adjudikatzea aurreikusita da:

150.000 €-ko zuzkidura ezarri da askotariko jarduketa batzuetarako, eta 1.505.445 €-koa jarduketa zehatz hauetarako:

*** Floridako HUPEa birgaitzea**

Obra hau 2020an lizitatu da eta urte honen beraren amaiera aldean hasia aurreikusita dago.

Alde batetik, HUPEaren barneko eta kanpoko instalazioak egokitu nahi dira, laneko arriskuaren prebentzioaren arloko lan-baldintzak hobetzeko, eta, bestetik, Hernaniko Florida auzotik Urumeako kolektorerara doan euri-uraren ekarpena mugatzeko behar diren obrak egiteko.

Jarduketarako 319.162 €-ko zuzkidura ezarri da.

*** Herrerako HUPEko bulkada-hodia birgaitzea: 1. fasea**

2020an, egitura-arazo handiak hauteman ziren urak Herrerako HUPetik San Pedroko tunelaren bidez itsasora zuzenean husten dituzten bultzada-hodietan. Horren ondorioz, AUSAk premiazko obra batzuk egikaritu behar izan ditu, dauden kalteak barrutik konpontzeko, eta konponketen egikaritzea bi fasetan bereizi ditu.

2020an, 1. faseko konponketa-obrak lizitatu ziren, eta 2021eko lehen hilabeteetan horiek amaitzea aurreikusita dago.

Jarduketarako 216.283 €-ko zuzkidura ezarri da.

* **Herrerako HUPEko bulkada-hodia birgaitzea: 2. fasea**

Lehen esan bezala, egin beharreko konponketak premiazkoak direnez, obren 2. fasea 2021ean zehar egikaritu nahi da (bigarren seihilekoan hasi nahi dira).

Jarduketarako 900.000 €-ko zuzkidura ezarri da.

* **Birgaitzeko obrak, ponpatze-ganberaren haustura, iriste-obra, Loiolako HUAn**

Azpiegitura hidraulikoek asko sufritzen dute, batez ere hondakin-uren eta horiek sortutako gasen eraso kimikoagatik.

Bada, gas horietako batek, hidrogeno sulfuroak, HUAn egiturak osatzen dituzten hormigoia- eta altzairuaren korrosioa eta narriadura sortzen du.

Egoera horren aurrean, kalte handiena jasan duen zonetako batean, hau da, iriste-obrako ponpaketaren haustura-ganberan, beharrezkoa da barrutiaren hormigoizko paramentuak konpondu eta babestea.

Jarduketarako 70.000 €-ko zuzkidura ezarri da.

Bestelako jarduketak

* **HUAn biltegi berria, hondakinentzako “garbigunea” eta sarrera- eta kontrol-ataria eraikitzea**

2019an, idazten amaitu zen HUAn biltegi eta “garbigune” berria eraikitzeko proiektua —beharrezkoa, lehendik dagoen gunearen saturazioa eta mugak direla-eta—, HUAn sarrera- eta kontrol-ataripea eraikitzea barne hartzen duena. Atari horrek ahalbidetu behar du bere garaian segurtasun-zaintzaile bat jartzea, deiak, profesionalen sarrerak, bisitak, kamioien pisaketak, segurtasuna, etab. kontrolatzeko.

Proiektua 1.428.362 €-ko zenbatekoaz adjudikatu zen.

Jarduketarako 350.000 €-ko zuzkidura ezarri da 2021erako.

* **Herrerako kolektoreko lurreko hustubidearen bypassa**

AUSAko saneamendu-sistema osoan dagoen azpiegiturarik kritikoenetako bat lurreko hustubidea da, araztutako urak zuzenean itsasora eramaten dituen. Bada, jarduketa honen bidez, ur horiek San Pedroko tunelaren ingurutik itsasora husteko eta lurreko hustubidea lehorrean utzi ahal izateko beharrezkoak diren obrak egikaritu nahi dira, konponketak edo mantentze-lanak egiteko.

Jarduketa 2020an lizitatu da, eta 2021eko lehen seihilekoan amaituko da.

Jarduketarako 200.000 €-ko zuzkidura ezarri da 2021erako.

Hornidura eta saneamenduko obra txikiak

Esperientziak erakutsi digu urtero zenbait jarduketa txiki gauzatzeko beharra sortzen dela, eta premiaz askotan. Jarduketa horiek, beren tamaina eta izaera ikusita, Añarbeko Urak erakundeko talde teknikoak erabakitzen ditu zuzenean, eta bidezkoa da aurrekontu-sail bat aurreikustea obra txiki horiek gauzatzeko, behar izanez gero. Horretarako, obra txikien atal bat ireki behar da, oraingoan aurrekontu txikiagoa izango duena, oro har dauden aurrekontu-murrizketak direla eta.

2021eko ekitaldirako, jarduketa horietarako (hornidura eta saneamendua) 25.000 €-ko aurrekontu-sail bana aurreikusi da.

Azterlanak, proiektuak eta bestelakoak idaztea

Ohikoa denez, gorago aipatutako inbertsioak gauzatzeko eskatzen du dagozkion egikaritze-proiektuak idazteko behar diren zenbatekoak sartzea inbertsioen eranskinean. Horri, izaera teoriko nabariagoa duten zenbait plan edo azterlan gehitu behar zaizkio. Hala, jarraian, aurreikusitako zenbatekoak zerrendatzen dira.

Hornidura

*** Hornidura-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legeriak eskatzen du egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten enpresa edo profesionalak izendatzea. Horiek beharrezko gaikuntza izan beharko dute.

Añarbeko Urak erakundearen tamaina kontuan izanda, zeregin horiek kanpora aterako dira eta 25.000 €-ko aurrekontu-zuzkidura ezarri da nahitaezko eginkizun horretarako, zeina hornidura zein saneamenduko obretan aplikatuko baiten.

*** 2021-22 proiektu-zorroa**

Ekitaldian zehar, kanpoko ingeniari-entzaile batek egindako proiektu baten beharra izango duen jarduketaren bat gauzatzeko beharra egongo balitz, 25.000 €-ko zuzkidura ezarri da horretarako.

*** Lezoko udalerriko uraren hornidura-sistema hobetzea**

Jarduketa honen xedea da egun Lezoko Udalak kudeatzen dituen tokiko zenbait hornidura-sistema (Amesti, Monatxo, Elortegi eta Arriandi) Añarbeko sistemaren (Petritegiko EUTEa – Darietako EUBBa) bitartez hornitzeko aukera izateko

beharrezkoak diren lanak zehaztea. Jarduketa idazteko prozesuan dago eta 2021aren erdialdean amaitzea aurreikusi da.

Jarduketa honetarako 73.000 €-ko aurrekontua ezarri da.

* **Santa Barbarako EUBBtik Hernanirako hornidura optimizatzeko sistemarako proiektua**

Sarrera jakin batzuk gauzatera edo kostuetan aurreztera baldintzatuta zeuden jarduketan artean, lehengo aurrekontuetan jasotako jarduketetako baten xedea zen I. hornidura-adarraren bitartez zuzenean egiten den Hernaniko hiriguneko hornidura hobetzeko aukera baloratzea. Horrela, matxuraren bat egonez gero, Hernanik edateko uraren hornidura berma lezake sareko adarretako biren bitartez.

Jarduketa honetarako aurrekontu-zuzkidura 26.070 €-koa da.

Saneamendua

* **Saneamendu-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legeriak eskatzen du egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten enpresa edo profesionalak izendatzea. Horiek beharrezko gaikuntza izan beharko dute.

Añarbeko Urak erakundearen tamaina kontuan izanda, zeregin horiek kanpora aterako dira eta 25.000 €-ko aurrekontu-zuzkidura ezarri da nahitaezko eginkizun horretarako, zeina hornidura zein saneamenduko obretan aplikatuko baiten.

* **2021-2022 proiektu-zorroa**

Ekitaldian zehar agerian geratuko balitz jarduketaren baterako beharrezkoa dela alde zurratik kanpoko ingeniari-entzesei eskatzea azterlan teorikoagoak eta egitaritza-proiektuak idatz dezaten, 30.000 €-ko aurrekontua ezarri da horretarako.

* **Gainezkabideak birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaia badiaren inguruan: Trintxerpe, Gomistegi eta Bidebieta**

Beste erakunde batzuekin hitzartu beharreko obren artean, Pasaia badiaren zati baten saneamendua birmoldatzea dago. Funtsean, badiarako gainezkabideen kopurua eta bolumena murriztu nahi da, bertako saneamendu-sareak bereiziz eta Trintxerpe inguruan atxikitze-tanga bat eginez, lehenengo urak atxikitze, horiek baitira benetan karga kutsatzaile handiena daramatenak.

Kasu honetan, proiektua dagoeneko adjudikatu da eta 2021eko lehen seihilekoan amaitzea espero da.

113.370 €-ko zuzkidura ezarri da proiektu hau idazteko.

* **Gainezkabideak birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiako badiaren ingurunean: Jose Elozegi**

Etorkizuneko hitzarmenean jasotako beste obra bat Herrera inguruko saneamendua hobetzea da. Zehazki, Portuko zonan (Herrera) atxikitze-tanga berri bat egitea da helburua, Pasaiako badiarako gainezkabideen kopurua eta horien isurketa-bolumena murrizteko.

Kasu honetan, proiektua dagoeneko adjudikatu da eta 2021eko lehen seihilekoan amaitzea espero da.

26.990 €-ko zuzkidura ezarri da proiektu hau idazteko.

* **Saneamenduko kolektore handietarako sarbideak egokitzeko proiektua**

Herrerako kolektorean esku-oihalen pilaketagatik eta horiek kentzeko zailtasunengatik sortutako buxaduraren ondoren, azterlan edo proiektu bat egin beharra dagoela erabaki da; horren bidez, AUSAk dituen kolektore handi horiek mantentzeko modu operatiboan zehazteko, horien egoera, sakonera edo diametroa direla-eta iristeko zailak baitira.

Horregatik, kolektore horietarako sarbideak zehaztuko dituen dokumentu bat idatzi nahi da, lortu nahi den helburura iristeko beharrezkoak diren obrak egikaritzeko.

14.900 €-ko zuzkidura ezarri da proiektu hau idazteko.

Obrak egikaritzeko lurzorua kudeaketa

* **Hainbat obratarako lurzorua kudeaketa**

AUSAren inbertsioen barruan, ohiko atala da obrak egikaritzeko lurzoria kudeatzera zuzendutakoa. Horrek balio behar du, bai Mankomunitateak eraiki beharreko azpiegiturak hartuko dituzten lurzoruen jabeei eman beharreko kalte-ordainei erantzuteko, bai, hala badagokio, hori kudeatzeko kontratatutako kanpoko zerbitzu teknikoak ordaintzeko.

10.000 €-ko aurrekontua dago ekintza honetarako.

* **Urnieta hornitzeko lurzorua kudeaketa**

Urnietako altako hornidura-sistema lokalak Añarbera transferitzeko akordioan jasotako konpromisoen barruan, AUSAk akordio horretan aurreikusitako obrak egiteko behar den

lurzoruaren zati handi bat kudeatu beharko luke. Obra horien kostua, zati batean, Urnietako Udalari jasanaraziko litzaioke ondoren.

271.780 €-ko aurrekontua dago ekintza honetarako.

7.5.3 Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak

Hornikuntzako, Saneamenduko, Kalitatea Kontrolatzeko eta Administrazioiko arloek egin beharko dituzten inbertsioak dira. Normalean, Proiektu eta Obren Arloari dagozkion inbertsioek (arestian jasoek) baino balio unitario txikiagoa dute.

Zerbitzugintza egokiena bermatzea dute helburu, baita instalazioak (elektromekanikoak eta elektronikoak izan ohi dira) berritzea, birgaitzea edo eguneratzea ere, ekipoak zaharkitzea saihesteko (bai katalogotik kanpo geratuko direlako bai beren balio-bizitza amaitu delako). Halaber, laborategiko analisi-aparatuak, ekipo informatiko eta ofimatikoak, ibilgailuak, etab. erostea barne hartzen du.

Datorren ekitaldirako, 2.364.915 €-ko zuzkidura dute guztira (beren xehetasuna jarraian jasota dago). Azaldutako jarduketa gehienen izenburua edo enuntziatua nahiko adierazgarria denez beren xedea eta edukia zein den jakiteko, eta kontuan hartuta horien kopuru handia eta dagozkien aurrekontu-sailen desagregazioa, jarduketa garrantzitsuen deskribapen banakatua baino ez da jasotzen ondoren. Xede eta ezaugarri komunak dituzten jarduketa txikiak, berriz, batera azaltzen dira.

Hornidura Arloa

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE

Guztira 438.000 €-ko zuzkidurarekin, helburu hauetara zuzendutako ekipo eta sistemetan inbertitzea da xedea:

- * **Segurtasunari eta osasunari lotutako jarduketak** (10.000 euro), instalazioen segurtasuna hobetzerantz zuzendutakoak. Ekintza hauen jatorria ustiategiko langileek antzemandako instalazioen arriskuei edo gabeziei buruzko ebaluazioen berrikuspenean dago. Langile horiek Añarbeko azpiegiturak ustiatu eta mantentzeko zerbitzuen enpresa adjudikaziodunaren segurtasun-batzordeari jakinarazi dizkiote.
- * **Prozesuak kontrolatzeko ekipoak eta sistemak** (5.000 €): Inbertsio hauen bitartez, aurrekontu-sail propioa izateko behar besteko garrantzirik izan gabe, EUTEan egiten diren aldaketa txikiei erantzuten zaie. Horien helburua da zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzea eta, bestetik, ekipoak modernizatzea.
- * **Kloroa dosifikatzeko ekipo berriak instalatzea eta legeztatzea** (320.000 €): Kloroa dosifikatzeko sistema tratamendu-instalazioko prozesurik kritikoenetako bat da. Instalazioa eta hura egikaritzeko irizpideak instalazioa abian jarri zen garaikoak dira (1989). Segurtasun-irizpide legal eta teknikoak eta ekipamendua nabarmen aldatu dira instalazioa zerbitzuan jarri zenetik igaro diren 30 urteetan.

2020an egikaritze-proiektu bat idatzi da, lanen irismena eta dagozkion lanak kontratatzeko aukera emango duten balorazio ekonomikoa zehaztu eta baloratzeko.

- * **Kontrolako, ozonoko, iragazketako eta birmineralizazioko eraikinetako barruko argiteria ordezkatzea** (40.000 €): Energia-efizientzia hobetzeko ekintzekin jarraituz, LED teknologian oinarritutako argiztapen efizienterik ez duten EUTEko eraikinetan argiztapena ordezkatzera aurreikusita da.

Jarduketa hori baliatuko da argitu beharreko lekuak arrazionalizatzeko, beharrak lan-arlo bakoitzean egin beharreko jardueretara egokituta. Puntu batean jarduketa zehatzen bat egin behar izanez gero, argiztapen osagarria instalatu beharko da, egin beharreko lanetarako egokia.

- * **Instalazioko irteera-biltegitik armairu elektrikoa ordezkatzera** (35.000 €): EUTEko kontrol-koadroak modernizatzen jarraituz, datorren urterako aurreikusita dago instalazioko irteera-biltegitik armairu elektrikoa ordezkatzera, txiki geratu baita.

Jarduketan aurreikusita dago egungo zerbitzu guztiak armairu berrian integratzea eta % 25 inguruko erreserba-espazioa uztea, bertan etorkizunean handitze-lanak egin ahal izateko, esate baterako: etengabeko kontrol-parametro berriak instalazioaren irteeran, etab.

- * **Hauspo-biltegitik birmineralizazio-kutxatilarako hodia bikoiztea** (18.000 €): 2003. urtetik, EUTEren tratamenduari birmineralizazioa gehitu zitzaionetik, karea prestatzeko eraikinean sortutako kare-ura oso malda txikiko hodi batek garraiatzen du hauspo-biltegitik birmineralizazio-kutxatilara. Produktuaren izaerak eta zirkulazioaren abiadura txikiak kare-prezipitatuaren ondoriozko buxadurak sortzen dituzte, eta horrek zaildu egiten du produktua prozesura igarotzea.

Prezipitatuak desinkrustatzeko lanak egiteko, beharrezkoa da hodi hori zerbitzutik kanpo uztea, eta, beraz, ura birmineralizatzeari uztea. Inbertsio honen bidez hodi hori bikoiztu nahi da, hornidura-sistema alternatibo bat bermatzeko eta, horrela, garbiketa-eta desinkrustatze-lanak modu antolatuta eta arautuagoan planteatu ahal izateko.

- * **Fluor-instalazioak ezabatzea** (10.000 €): 2020. urte honen amaiera alderako, AUSAko ura fluoratzeari uztea aurreikusita da, bere garaian ezarritako legezko baldintzak ez baitira betetzen jadanik. Horregatik, aurrekontu-sail bat aurreikusita da biltegitratze-sistema ezabatzeko. Horrela, 80 m² inguruko espazio bat libratuko da, etorkizunean tratamenduan erreaktiboak erabiltzeko.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak

Aurreko atalean zehaztutakoen antzeko xedeak ditu. 190.000 €-ko zenbatekoarekin, honako jarduketa hauen aurrekontua egin da:

- * **Hornidura-sistemaren instalazioetarako teleaginteko urruneko berriak** (60.000 €): 2020an, 4G komunikazioetan oinarritutako urruneko estazioaren prototipo bat diseinatu da. Urruneko horren helburua da udalek transferitutako azpiegitura

berrietan (Urnietako instalazioen kasuan bezala) tamaina txikiko baina goi-prestazioetako urruneko bat instalatu ahal izatea.

- * **Oiamarko behin-behineko EUPEa** (40.000 €): 2020an, Oiamarko biltegia Añarben jatorria duen uraz hornitzaia behin-behinean finkatu da. Egoera horrek bere horretan jarraituko du Urnietako udalerriko biltegiara ponpaketa berria egiteko proiektua egikaritu arte. Proiektuak egungo gabeziak konponduko ditu. Proiektu horrek Oiamarko biltegi zaharrean ponpa berriak jartzea ere aurreikusten du, Añarben jatorria duen ura Armunttoko biltegiraino bultzatzeko. Horretarako, beharrezkoa da galdaragintza-lanak egitea, ponpei eragiteko koadro elektriko berria hornitzaia eta larrialdietarako unitate elektrogeno batez ekipatzea, unitate horrek behar den energia elektrikoaren hornitzaile gisa funtziona dezan, Oiamarrerako hargune elektriko berriaren arazoa konpondu bitartean. Ondoren, sarearen hornidura hobetzeko obra guztiak amaitu ondoren, ponpaketa hori Oiamar EUBB berrian ipiniko da berriro.
 - * **Amarako EUPEa: ponpetako baten maiztasun-aldagailua ordezkatzeta eta PLCarekin zuntz bidez komunikatzea** (30.000 €): Amarako EUPEak bi ponpa ditu, eta abio-sistema maiztasun-aldagailu (MA) banaren bidez egiten da. Maiztasun-aldagailuetako bat duela 15 urte instalatu zen, eta gaur egun ez dago zerbitzu teknikorik akats baten aurrean hura konponduko duela bermatuko duenik. Instalazio honek 250 kW-ko potentziako bi motoponpa dituela kontuan hartuta, hain kalibre handiko ekipoak entregatzeko eta konpontzeko epeak luzeak dira. Izan ere, gama horretako ekipoen erabilgarritasuna potentzia baxuagoetarako dagoena baino askoz txikiagoa baita. Horregatik, ponpaketa honetan instalatutako lehen maiztasun-aldagailua ordezkatzeta aurreikusi da.
- Bestalde, ekipo horien eta biltegiaren automataren arteko konexioak ekipoekin beraiekin interferentziarik sortuko ez duten zuntz optikoko kableen bidez hornitu nahi dira.
- * **LED argietara aldatzea biltegi eta ponpetan** (30.000 €): Energia-efizientzia hobetzeko ekintzen barruan, 2020an 1., 2. eta 4. adarretako instalazioen argiztapen-sistemak LED teknologian oinarritutako ekipoekin ordezkatu dira. Datorren urterako, hornidura-sareetako gainerako instalazioen aldaketaosatzea aurreikusi da, eta 3. adarreko instalazioak ordezkatzeta geratuko da.
 - * **Amarako EUPEa. Intsonorizazio-lanak** (15.000 €): 2020an txosten akustiko bat egin zen Amarako EUPEaren funtzionamenduak ponpaketaren ingurunean duen eraginari buruz (ingurune hori gero eta eraikiagoa dago). Txosten horrek ondorioztatzen du legez baimendutako mugak zertxobait gainditzen dituen zarata sortzen dela eta, hortaz, zaratak murrizteko neurriak hartu behar direla. Proposatutako neurrietako bat da ponpaketa-eraikineko sarrerako atea erabat ordezkatzeta intsonorizatutako ate batekin.
 - * **Monseko EUBBa. Intsonorizazio-lanak** (15.000 €): 2020an txosten akustiko bat egin zen Monseko EUBBaren funtzionamenduak biltegitik hurbilen dauden etxeetan duen eraginari buruz. Txosten horrek ondorioztatzen du legez baimendutako mugak zertxobait gainditzen dituen zarata sortzen dela eta, hortaz, zaratak murrizteko neurriak hartu behar direla. Proposatutako neurrietako bat da biltegi giltzen

ganberako eraikinean sartzeko atea erabat ordezkatzeari intsonorizatutako ate batekin.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa

Añarbeko presaren auskultazioa hobetzeari dagokionez inbertsiorik esanguratsuenak azken urteotan egin ondoren, hiru jarduketara planteatu dira ekitaldi honetarako. Horien aurrekontu-zuzkidura, guztira, 45.000 €-koa da. Hona hiru jarduketak:

- * **Galerien arteko fibrozementuzko barne-zorrotena ordezkatzeari** (20.000 €): Presaren galerien barruan hainbat aforatzaile daude, presak mendiarekin egiten dituen elkarguneetan zirkulatu duten emariak kontrolatzeko. Aforatzaileek bildutako urak 100 kotako galeriara bideratzen dira, kanporatzeko. 145./124. eta 100. galerien arteko konexio-zorrotena fibrozementuzko hodi batek osatzen du. Inbertsio honen bidez, hura polietilenoazko hodi batekin ordezkatzeari aurreikusi da.
- * **Hiru dimentsioko 14 juntura-neurgailu muntatzea 145. galerian** (15.000 €): Nahitaezkoa denez, urtero egiten da presaren ustiapenari buruzko urteko txostena. Bertan, auskultazio-sistemak hobetzeko gomendio batzuk sartu ohi dira. Proposatutako neurrietako bat 145. galeriako hiru dimentsioko juntura-neurgailuen ekipamendua da, blokeen arteko mugimendu erlatiboa kontrolatzeko. Gaur egun, hiru juntura-neurgailu automatiko baino ez daude instalatuta. Horiek oker funtzionatu dute eta, gainera, kaltzifikazioen eraginpean daude. Arazo horiek saihesteko eta urteko txostenean jasotako gomendioak betetzeko, aurreikusi da hiru dimentsioko eskuzko juntura-neurgailuen 14 unitate jartzeari eta dauden automatikoak kentzea.
- * **Pista perimetraleko goiko sarrera-ateak TZI bidez kontrolatzea** (10.000 €): 2020an, kanalizazioak eta elektrifikazioa prestatu dira pista perimetralaren hasieran dauden ateak urrutitik irekitzeko aukera emango duten motorrak jartzeko, bai Gipuzkoako aldean, bai Nafarroakoan. Inbertsio honen bidez, ikuspen-kamerak eta txartel-irakurgailuak jartzeari aurreikusi da, bi puntu horietan sarbidea zaindu eta kontrolatu ahal izateko. Instalatu beharreko ekipoa AUSA hainbat instalaziotarako jartzen ari diren sarbide- eta zaintza-kontrolako sistemetan integratu ahal izango dira.

Administrazio Arloa

Administrazio-zerbitzuei lotutako inbertsioak:

- * **Altzariak, tresnak eta beharrezko beste gauza batzuk erostea**

2021eko ekitaldian 5.000 €-ko zuzkidura ezarri da bulego-altzarietarako, telefono-instalaziotarako, eta airea egokitzeko gailuen, argiteriaren eta abarren eta sozietatearen eraikinetako beste instalazio batzuen handitze edo aldaketa txikiak egiteko behar berriei erantzuteko.

- * **Zibersegurtasun-sistemak aztertu eta ezartzea horniduraren eta saneamenduaren arloetan**

Kanpoko sarrera seguruak sortzea ahalbidetu eta hirugarrenen erasoak eragotziko dituzten sistema informatikoak prestatzea da xedea. Jarduketak 50.000 €-ko zuzkidura izango du.

* **Ekipo informatikoak**

2021eko ekitaldian egon daitezkeen informatikaren arloko behar berriei erantzuteko zuzkidura 20.000 €-koa da.

* **Enpresa-kudeaketarako softwarea**

Asmoa da sarrerako eta irteerako dokumentuen erregistroa, eskariak eta fakturazioa, kontabilitatea, instalazioen mantentze-sistema, etab. egoki eta batera kudeatzeko aukera emango duen softwarea instalatzea. Jarduketak 100.000 €-ko zuzkidura du.

Komunikazioaren arloko inbertsioak:

* **Webgune korporatiboa garatzea**

Gizarte-komunikazio orokorrari, irudi korporatiboari eta informazio-plataformari lotutako helburuak eta betebeharrak betetzeak eskatzen du Añarbeko Urak erakundearen webgunea edo ziberorria hobetzea. 10.000 €-ko aurrekontua ezarri da horretarako.

* **Ingurumeneko hezkuntza eta dibulgaziorako sistemak eta materialak**

Bisitaldi gidatuetan eta ingurumen-sentsibilizaziorako kanpainetan erabiliko diren erakusketa-materialak (bideoak, maketak, informazio-panelak, etab.) eta bestelako material didaktikoak eta hezkuntza-baliabideak sortu eta erosteko kontu-saila. 20.000 €-ko aurrekontua ezarri da horretarako.

Kalitatea Kontrolatzeko Arloa

Edateko uren laborategirako material eta ekipoak erostea

* Hainbat ekipo erostea

10.000 €-ko zuzkidura ezarri da Petritegi EUTEko edateko uren laborategirako behar ohi diren tresnak, ekipoak eta gailuak erosteko eta berritzeko, ohikoa eta behar-beharrezkoa den heinean.

Hondakin-uren laborategirako material eta ekipoak erostea

* Hainbat ekipo erostea

10.000 €-ko zuzkidura ezarri da Loiolako HUAko hondakin-uren laborategirako behar ohi diren tresnak, ekipoak eta gailuak erosteko eta berritzeko, ohikoa eta behar-beharrezkoa den heinean.

Saneamendu Arloa

Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA

Loiola HUAk beharrezkoa du, Añarbeko Urak erakundearen beste instalazioek baino gehiago ere, bere ekipoak, parametro hidrauliko, fisiko-kimiko eta biologikoak prozesatu, kontrolatu eta erregulatzeko gailuak, laneko arriskuen prebentziorako material eta ekipoak eta antzekoak etengabe hobetu eta eguneratzea.

Kontzeptu honetan biltzen dira HUAko uren eta lohien tratamendu-lerroetako hainbat zatitan gailuak berritu eta instalatzea barne hartzen duten jarduketak, guztira 1.129.715 €-koak. Jarduketa horiek bideratuta daude prozesuak hobetzera, betiere instalazioen funtzionamenduan ustiapeneko eta mantentze-lanetako langileen beharra, energia elektrikoaren kontsumoa eta laneko segurtasun eta osasuneko arriskuak ahal den heinean murrizteko helburuarekin.

Jarduketak honako hauek dira:

*** Ponpa zentrifugoak hornitzea, instalatzea eta mantentzea**

Loiola HUAko Deshidratazioko Eraikinean instalatutako hiru ponpa zentrifugoak 2008tik daude funtzionamenduan. Ponpa zentrifugo horiek 16 m³/h ere tratatzeko ahalmena dute, eta % 20ko lehortasunera iristen dira. Xedea da dauden ponpa zentrifugoen ordeztzeko azken belaunaldiko batzuk ezartzea, 25 m³/h-raino tratatu eta % 25ko lehortasunera iritsi ahal izateko. Jarduketak 540.040 €-ko zuzkidura izango du.

*** Digestoretik tanpoi-biltegira elikatze hodiak aldatzea**

Loiolako HUAko digestio-eraikinean diametro desberdinetako hodi ugari daude, eta guztiak altzairu galvanizatukoak izatea dute komunean.

Lohia garraiatzen duten hodiak sufritu dute gehien urte hauetan, hidrogeno sulfuroarekiko esposizioagatik eta urraduragatik. Hori dela eta, ez daude behar bezala funtzionatzeko moduan. Altzairu galvanizatuzko hodi horien ordeztzeko hodiak jartzea proposatzen da. Jarduketarako 100.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

*** SCADA kudeatzeko plan estrategikoa**

Bai Hornidura Arloak, bai Saneamendu Arloak datuak eskuratu eta irudikatze sistema bat dute, SCADA izenekoa, eta bi arloak osatzen dituzten instalazio guztiak biltzen ditu. Denboran zehar, arlo bakoitzak SCADA bat garatu du bakarlanean arituz, baliozko sistemak garatuz, baina elkarren arteko loturarik gabe, eta zaila da bi sistemak eskuratutako datu guztiak erraz erabiltzeko moduko sistema komun batera esportatzea. Bi arloetarako proiektu komuna garatu nahi da, erabilerraza izango dena eta Añarbeko Urak erakundearen ustiapen- eta zuzendaritza-arloen irizpide eta beharretara egokituko dena. Jarduketarako 80.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

*** Lehorketa termikoko errota ordezkatzeta**

Loiolako HUAren lehorketa termikoan, bahe birakaritik ateratzen den lohi lehorra ehotzeko balio duen ekipo bat dago, behar baino handiagoa. Lohi lehorra ehotzearen eta haren ezaugarrien ondorioz, errotaren egitura eta barruko zatiak gehiegi higatu dira. Egungo errotaren ordezkari berri bat jartzea proposatzen da, urradurarekiko erresistenteagoa izango den material batekin eraikia. Gainera, bide batez, leherketa-arriskua izan dezaketen eremuei buruzko ATEX araudira egokituko den errota bat ezarriko da haren ordezkari. Jarduketarako 55.500 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

*** Iriste-obrako putzuetako xurgatze-hodia aldatzea**

Loiolako HUAko iriste-obra hiru ponpaketa-putzu ditu, eta horietako bakoitzean lau ponpa daude. Hamabi ponpa horiek, batzuetan, kabitazioan sartzen dira. Ondorioz, behe-presioko lurrun-burbuilak sortzen dira, eta horiek inplosionatu egiten dira. Horrela, errodetea jotzen duen presio-uhina sortzen da. Horrek ponpan bibrazioak sortzen ditu, eta bibrazioek errodetean zulaketak eta ponpan desdoikuntza mekanikoak eragiten dituzte. Arazo hori saihesteko, proposatzen da ponpen xurgapena aldatzea eta kabitaziorik ez sortzeko forma egokia ematea. Jarduketarako 55.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

*** Harea kentzeko makinaren ponpa autoxurgatzaileak hornitzea eta instalatzea**

Loiolako HUAko harea eta koipea kentzeko eraikinean sei kanal daude harea eta koipea bereizteko. Harea kanalen hondotan dekantatzen da eta harea-bereizgailuetaraino bultzatzen duten ponpa batzuek (kanal bakoitzeko bana) ateratzen dute hura. Ponpa horiek bizitza baliagarriaren amaierara iritsi direnez, askoz ere efizienteagoak izango diren sei ponpa berri instalatzea proposatzen da. Jarduketarako 52.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

*** Lehorketa termikoko kondentsadorea ordezkatzeko**

Loiolako HUAko lehorketa termikoak bi zirkuitu bereizi ditu: horietako batetik lohi heze-lehorra igarotzen da, eta bestetik lohi hezea lehortzen duen airea. Aire lohiarekin kontaktuan jartzen denean, lohia lehortzen du eta hautsez eta hezetasunez asetzen da. Aire-zirkuituaren instalazioaren zati batek aireari hezetasuna eta hautsa kentzeko balio du. Zehazki, airearen hezetasuna kentzen duen ekipo horietako bat kondentsadorea da. Ekipo hori, denboraren joanaren eta erabilera-baldintzen eraginez, nabarmen hondatu da. Beraz, haren ordezkari, efizienteagoa izango den beste bat jartzea proposatzen da. Jarduketarako 50.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

*** Digestorearen barruko jarduketak**

Loiolako HUA hiru digestore daude lohien linean. Horietako bi martxan daude eta hirugarrena erreserba gisa dago. Urtean behin, horietako bat hustu eta azterketa sakona egiten da, berrikusi eta konpontzen da, horman eta kupulan egon daitezkeen arrakalak garbitzen dira, hodiak telebista-kamerarekin ikuskatu, higatutako hodiak konpondu, etab. Jarduketarako 50.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Lehorketa termikoko zerbitzurako ur-ponpak hornitzea eta instalatzea**

Lehorketa termikoak ur kantitate handia behar du prozesatzeko. Erabilitako ura instalazioko ur tratatutik dator eta ponpatuta iristen da ur tratatuaren irteerako kutxatilatik. Ur hori hiru ponparen bidez ponpatzen da, eta ponpa horiek bizitza baliagarriaren amaierara iritsi dira. Askoz ere efizienteagoak izango diren hiru ponpa berri instalatzea proposatzen da. Jarduketarako 40.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **LAP ekintza plana**

Langileen segurtasuna areagotzeko ekintzak, taldeko babes-ekipamenduak eta - sistemak aldatzeko. Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da.

* **Loiolako HUAko dokumentazio elektrikoa Eplan-en digitalizatzea. 1. fasea**

Loiolako HUAko dokumentazio elektrikoa paperean dago eskuragarri. Egiten diren aldaketa guztiak eskuz jaso behar dira dagoen dokumentuan, eta horrek akatsak egitea eta, batzuetan, informazioa galtzea dakar. Asmoa da HUAan dauden plano elektrikoen guztiak formatu digitalera bihurtzea, zehazki, "EPLAN" izeneko software espezifiko batera: plano elektrikoen egitea bideratutako marrazketa-programa informatiko bat. Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Biltegitratze-siloetarako hautsa xurgatzeko sistema bat hornitzea eta instalatzea**

Loiolako HUAren lehorketa termikoa ATEX instalazio gisa sailkatuta dago, hautsa dela eta. Saiatu behar da ez dadin hautsik pilatu, ez gainazalera, ez esekiduran, edozein su-iturri eragindako deflagrazioak saihesteko. Lohi lehorra biltegitratze-siloetan sartzen denean, hauts-lainoak sortzen dira barruan, eta gero horiek dekantatu egiten dira. Kamioietan lohi lehorra deskargatzeko garaian, hauts hori airean esekita geratzen da berriro, deflagratzeko arriskua du. Hautsa xurgatzeko sistema bat instalatzea proposatzen da, biltegitratze-siloetan hautsa kentzeko eta prozesura eramateko, kamioiak kargatzean arriskurik egon ez dadin. Jarduketarako 18.675 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Lohi lehorraren tenperatura eta hezetasuna neurtzeko ekipoa hornitzea**

Lohi lehorraren hezetasuna eta tenperatura garrantzitsuak dira, ondoren lohia azken helmugan maneiatzeko. Hezetasun edo tenperatura handiak arazoak eragiten ditu lohia biltegitratzean, eta horrek lohien autoerrekuntza eta, kasu batzuetan, deflagrazioak eragin ditzake. Neurri horiek kontrolatzeko eta aurretik adierazitako ezer gerta ez dadin, tenperaturaren eta hezetasunaren neurgailu bat instalatzea proposatzen da, parametro horiek monitorizatze eta kontrolatzeko eta, horrela, arazoari aurrea hartzeko. Jarduketarako 16.500 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Zentrifugagailuen bypassa egiteko konporta automatizatuak hornitzea eta instalatzea**

Loiolako HUAko zentrifugagailuek deshidratatzen dute digestoretik datorren lohia. Digestoretik ateratzen den lohia, % 3 inguruko lehortasuna duena, % 21 inguruko lehortasuneko lohi bihurtzen dute. Zentrifugagailuan arazoak sortzen direnean, geldialdi kontrolgabeak gertatzen dira, eta gaizki deshidratatuta dagoen lohiaren zati bat ondo deshidratatutako lohiarekin nahasten da. Horrela, ondorengo prozesuetan arazoak ematen dituen pasta bat sortzen da. Konporta-balbula batzuk instalatzea proposatzen da, geldialdi kontrolgabe bat gertatzen denean lehen azaldutako arazoa saihesten dadin. Jarduketarako 7.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

*** HUAren SCADArako 10 kVA-ko UPS bat hornitzea eta instalatzea**

Loiolako HUAko SCADA aplikazioan jaso eta monitorizatzen dira HUAren nahiz saneamendu-sareko instalazio guztien automata programagarrietatik iristen diren datu guztiak. Sareko tentsioa eteten bada, sistema hori guztia erori egiten da eta saneamendu-sistemaren datu guztiak jasotzeko eta monitorizatzeke uzten dio. 10 kVA-ko UPS bat instalatzea proposatzen da, eten elektrikorik balego sisteman tentsioa mantentzeko, datuak biltzen jarraitu ahal izan dezan. Jarduketarako 5.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak

Saneamendu-sareek beharrezkoa dute, Añarbeko Urak erakundearen beste instalazioek baino gehiago ere, bere ekipoak, parametro hidraulikoak prozesatu, kontrolatu eta erregulatzeko gailuak, laneko arriskuen prebentziorako material eta ekipoak eta antzekoak etengabe hobetu eta eguneratzea.

Kontzeptu honetan, guztira 337.200 €-ko zuzkiduraz, hainbat jarduketa biltzen dira, besteak beste, zenbait HUPEtan gailuak berritzea eta instalatzea, betiere ustiapeneko eta mantentze-lanetako langileen eta energia elektrikoaren kontsumoaren beharra ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin. Horrek berekin ekarriko du, orobat, instalazioetan jardutean laneko segurtasun eta osasuneko arriskuak murriztea.

Jarduketak honako hauek dira:

*** Segurtasunaren eta osasunaren arloko jarduketak**

Langileen segurtasuna areagotzea da helburua, babes kolektiboko ekipamenduak eta sistemak aldatuta. Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da.

*** Ibaetako HUPeko kaxa elektrikoak egokitzea**

Ibaetako HUPe 1993an eraiki zen, eta ordutik aldaketa txikiak egin dira kaxa elektrikoetan, instalazioa indarrean dauden behar eta arau berrietara egokitzeko. Kontuan hartuta Ibaetako HUPe saneamendu-sistemaren instalazio garrantzitsuenetako bat dela, erdi-tentsioko eta behe-tentsioko kaxak aldatzea proposatzen da, instalazioa modernizatzeke eta energetikoki optimizatzeke. Jarduketarako 250.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

*** Monpaseko urpeko hustubidearen anodo galvanikoetan jardutea**

Monpaseko URISaren lehen tarte tinkaturik eraikita dago eta 2.000 mm-ko diametroa du. Jarraian, altzairuzko hodiko 100 m-ko bederatzi tarte daude. Hodiak 19,1 mm-ko lodiera eta 2.000 mm-ko diametroa du, eta barruko estaldura 300 µm-koa dauka, mundrun naturalaren erretxina epoxikokoa, eta kanpoko estaldura 6 mm-koa, polietilenoakoa. 10 m-ko tarte bakoitzeko, aluminiozko anodo galvanikodun bi besoko ditu, eta besoko bakoitzak 40 kg-ko pisua du. Anodo horiek, gutxi gorabehera, 50 m-ko sakoneran urperatuta daude, eta gainazala arkakaratsez beteta dute. Arkakaratsezko estaldura horrek galarazi egiten du anodoek ondo lan egiten. Beraz, horiek garbitzea proposatzen da. Jarduketarako 28.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Errenteriako HUPEko unitate elektrogenoaren estalkia**

Errenteriako HUPEan, 2019 eta 2020 artean, instalazioaren unitate elektrogenoa eta indar- eta maniobra-koadro guztiak aldatu dira. Hasieran, unitate elektrogenoa eraikinaren barruan instalatuta zegoen, baina, instalazioaren espazioak birmoldatu eta banatzean, hura kanpoaldera eramatea erabaki zen. Unitate elektrogenoa intsonorizatuta eta aire zabalean egoteko prestatuta dagoen arren, estalki bat eraikitzea proposatzen da, hura estaltzeko eta eguraldi txarretik babesteko. Jarduketarako 15.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Eroankortasun-neurgailuak hornitzea eta saneamendu-sarean jartzea**

Saneamendu-sareko eremu estrategikoetan eroankortasun-neurgailuak jartzea da helburua, itsasoko uraren intrusioa kontrolatzeko. Puntu hauek hautatu dira:

- Antxoko HUPEa: ponpaketa-putzua
- Errenteriako HUPEa: putzura sartzeko kutxatila
- Herrera HUPEa: HUPEaren uhatearen aurretik dagoen elkarguneko kutxatila
- Saguesko HUPEa: putzuaren kutxatila, maila-zundaren ondoan
- Ibaetako HUPEa: putzuaren kutxatila, maila-zundaren kontrako aldean
- Santa Katalinako HUPEa: Arrasate kalea, uhatearen aurretik

Jarduketarako 14.200 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

7.6. Sarrera jakin batzuk gauzatzearen edo kostuetan aurreztearen mende dauden inbertsioak

Aurreko guztiaz gain, nabarmendu behar da, jakina denez, ekitaldi bakoitzean zehar inbertsioen exekuzioa aldaketa batzuen mende dagoela ezinbestean. Izan ere, jakina da obrak esleitzeko prozesuetan beherapenak izaten direla, orokorrean, haiek adjudikatzeko aurrekontuan, lizitazio-prozesura aurkezten diren enpresen arteko lehiaren ondorioz noski. Beherapen horien zenbatekoa egoera ekonomiko orokorraren eta, bereziki, obra publikoaren eta eraikuntzaren merkatuaren arabera aldatzen da eta, batuta, zenbateko esanguratsuko aurrezpenak dakartzate —Mankomunitatearen izenean AUSAk egiten dituen obren likidazioa ia beti oso neurritzkoa izaten den heinean, ez bada adjudikazio-aurrekontuaren behetik geratzen—.

Inbertsioen aurrekontua garatu eta gauzatzean, halaber, jarduketetakoren batek hasieran kalkulaturako irismen tekniko eta ekonomikoa baino txikiagoa izan ohi du; eta, zenbaitetan, ez da beharrezkoak izaten ere, dagokion azterlana edo proiektua egin eta osagai tekniko zehatzak bertatik bertara arakatu ondoren lehen eskura zegoen informazioa behar adina zehatza ez zela eta, egiaz, jarduketa beharrezkoa ez dela ikusi baita. Horrek, nola ez, xede horretarako aurreikusitako baliabide ekonomikoak zati batean edo osorik askatzen ditu.

Baina egia da ere kontrakoa gerta daitekeela, hau da, jarduketaren baterako edo batzuetarako kalkulaturako zenbatekoak nahikoak ez direla, izan ere, ezinezkoa baita haien benetako irismena zein den jakitea dagokion egikaritze-proiektua egin aurretik. Eta oso gutxitan gertatu bada ere, obraren bat adjudikazio-aurrekontuaren gainetik dagoen prezioan likida daiteke, egikaritze-proiektua idazteko unean duten garrantzia zehaztasun osoz aurreikustea zailak diren gorabehera batzuen ondorioz ere —oro har, lursailaren izaeragatik eta eraginpeko zerbitzuak berrezartzeagatik—.

Horrenbestez, komeni da, egikaritu ahal izateko, diru-sarrera zehatz batzuk gauzatzearen edo goian adierazitako kostu-aurrezpenaren mende dauden inbertsioei buruzko epigrafe bat sartzea:

Inbertsioak	Zenbatekoa (BEZa kanpo)
1. Saneamendu-kolektore handietarako sarbideak egokitzea	150.000
2. Loiolako HUA handitzea	5.000.000
3. Santa Barbarako EUBBtik Hernanirako hornidura-sistema optimizatzea	1.000.000
4. Darietako EUBBtik Lezoko udalerrirako hornidura indartzea	80.000
5. Loiolako HUAko tratamendu biologikoko putzuak estaltzea	2.200.000
6. Urumea ibaiaren arroko jarduketak Añarbeko presaren kudeaketa hobetzeko	100.000
7. Alabergako EUBBko hodian irteera aldatzea	300.000
8. Itsas uraren intrusioa kentzea	500.000
9. Behe-kanala birgaitzeko alternatibak aztertzea	100.000
10. Lurreko hustubidea birgaitzeko eta hobetzeko alternatibak aztertzea	60.000
11. Ibaetako HUPetik Santa Katalinako HUPERako bulkada-hodia zabaltzea	600.000
12. Petritegiko EUTEko kontrol-eraikina zabaltzea	1.600.000
13. Petritegiko EUTetik AUSAko datu-sarera zuntz optikoa konektatzea	70.000
14. Behe-kanalerako Kontingentzia Plana egitea – 2. fasea	250.000
15. Behe-kanalerako Kontingentzia Plana egitea – 3. fasea	5.000.000
16. Loiolako HUAko desodorizazioak aldatzea	300.000
17. Loiolako HUAko kontrol-eraikinaren fatxada birgaitzea	300.000
18. Gainezkabideen ekipamendua araudi berri batera egokitzea	1.000.000
19. Hiri-kolektorea Oiartzun ibaiaren eskuinaldean	1.500.000
20. Donostiako udalerrian Antigua auzoaren saneamendua amaitzea	3.000.000
21. Hernaniko udalerria urez hornitzeko sistema hobetzea	400.000

C) Aurrekontu bateratua

Añarbeko Uren Mankomunitatea eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA

SARREREN EGOERA-ORRI BATERATUA					
Kapitulu a	Izena	AUMA	Sozietatea	Doikuntza k	Bateratua
3	Tasak eta bestelako sarrerak	10.001	18.621.856	(1)	18.631.856
5	Ondare-sarrerak	-	569.901	-	569.901
7	Kapital-transferentziak	-	733.538	-	733.538
8	Finantza-aktiboak	-	2.515.336	-	2.515.336
9	Finantza-pasiboak	-	1.600.792	-	1.600.792
Sarrerren egoera-orria guztira		10.001	24.041.423	(1)	24.051.423

GASTUEN EGOERA-ORRI BATERATUA					
Kapitulu a	Izena	AUMA	Sozietatea	Doikuntza k	Bateratua
1	Langile-gastuak	-	2.392.357	-	2.392.357
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	10.001	12.346.327	(1)	12.356.327
3	Finantza-gastuak	-	13.890	-	13.890
6	Inbertsio errealak	-	8.891.929	-	8.891.929
9	Finantza-pasiboak	-	396.920	-	396.920
Gastuen egoera-orria guztira		10.001	24.041.423	(1)	24.051.423

D) AUSAren aurreikusitako kontuak

2021eko abenduaren 31n aurreikusitako balantzea

AKTIBOA		PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		ONDARE GARBIA	
Ibilgetu ukiezina	1.695.800	Funts propioak	
Ibilgetu materiala	200.138.866	Kapital harpidetua	3.649.000
Higiezinetao inbertsioak	0	Erreserbak	82.752.936
Taldeko enpresen inbertsioak epe luzera	3.645.067	Ekitaldiko emaitza	1.694.983
Aktibo ez-korrontea guztira	205.479.733	Funts propioak guztira	88.096.919
		Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	113.997.746
AKTIBO KORRONTEA		Ondare garbia guztira	202.094.665
Izakinak	74.042	PASIBO EZ-KORRONTEA	
Zordun komertzialak eta kobratzeko dauden bestelako kontuak		Epe luzerako zorrak	3.136.632
Aurrekontuko zordunak	3.325.826	Pasibo ez-korrontea guztira	3.136.632
Aurrekontuz kanpoko zordunak	332.583	PASIBO KORRONTEA	
Zordunak guztira	3.658.409	Epe laburrerako zorrak	319.522
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	2.461.035	Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak	
Aktibo korrontea guztira	6.193.486	Aurrekontuko hartzekodunak	5.067.844
		Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.054.556
		Hartzekodunak guztira	6.122.400
		Pasibo korrontea guztira	6.441.922
AKTIBOA GUZTIRA	211.673.219	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	211.673.219

2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion aurreikusitako galera-irabazien kontua

A) ERAGIKETA JARRAITUAK	
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	18.337.677
a) Salmentak	309.878
b) Zerbitzugintzak	18.027.799
4. Hornikuntzak	(7.170.879)
b) Lehengaien eta bestelako materia kontsumigarrien kontsumoa	(1.907.832)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak	(5.263.047)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak	354.079
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko bestelakoak	354.079
6. Langile-gastuak	(2.392.357)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	(1.928.628)
b) Karga sozialak	(463.729)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(5.169.448)
a) Kanpoko zerbitzuak	(4.119.663)
b) Tributuak	(1.049.785)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(8.256.439)
9. Ibilgetu ez-finantziarioko dirulaguntzen eta bestelako egozpena	5.512.240
A.1) USTIAPEN-EMAITZA	1.214.873
13. Finantza-sarrerak	500.000
b) Balore negoziagarrienak eta bestelako finantza-tresnenak	500.000
b2) Hirugarrenenak	500.000
14. Finantza-gastuak	(13.890)
b) Hirugarrenetikiko zorren ondoriozkoak	(13.890)
A.2) FINANTZA-EMAITZA	486.110
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA	1.700.983
17. Mozkinen gaineko zerga	(6.000)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDIKO EMAITZA	1.694.983
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	1.694.983

Aurreko egoera-orrian azaltzen den emaitza ekonomikoak erakusten du magnitude horren aurreikuspena 2021eko urteko kontuetan. Aipatu beharra dago, ordea, ikus daitekeenez, emaitza horretan kapitaleko dirulaguntzen eta banatu beharreko bestelako sarreraren itsuldaketa jasota dagoela, guztira 5.512 mila €-ko zenbatekoaz.

Honela, zerbitzugintzaren ondoriozko guztizko gastuak —zerbitzuaren erabiltzaileek erabiltzen duten azpiegitura osoaren amortizazio teknika barne, haien finantzaketaren jatorria kontuan hartu gabe (funts propioak, zorpetzea, dirulaguntzak edo lagapenak)—oinarrizko zerbitzugintzaren eta beste jarduera osagarri batzuen ondorioz jasotzen diren sarrerak baino 3.818 mila € handiagoak dira.

2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion aurreikusitako ondarean izandako aldaketen egoera-orria

2021eko ekitaldiari dagozkion aitortutako sarrera eta gastuen egoera-orriak

Kontzeptua	2021
A) Galera-irabazien kontuaren emaitza	1.694.983
Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak	
III. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	733.538
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak guztira	733.538
Transferentziak galera-irabazien kontura	
VIII. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	(5.512.240)
C) Transferentziak galdu-irabazien kontura guztira	(5.512.240)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(3.083.719)

2021eko ekitaldiari dagokion ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria guztira

	Kapital eskrituratua	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2019ko amaierako saldoa	3.649.000	77.290.859	2.395.512	123.288.688	206.624.059
B) 2020aren hasierako saldo doitua	3.649.000	77.290.859	2.395.512	123.288.688	206.624.059
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	3.066.565	1.000.000	4.066.565
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	2.395.512	(2.395.512)	(5.512.240)	(5.512.240)
C) 2020ko amaierako saldoa	3.649.000	79.686.371	3.066.565	118.776.448	205.178.384
D) 2021aren hasierako saldo doitua	3.649.000	79.686.371	3.066.565	118.776.448	205.178.384
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	1.694.983	733.538	2.428.521
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	3.066.565	(3.066.565)	(5.512.240)	(5.512.240)
E) 2021eko amaierako saldoa	3.649.000	82.752.936	1.694.983	113.997.746	202.094.665

E) GECASAn behin-behineko aurrekontua eta kontuak

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietateak % 70eko partaidetza du Gestión de Centrales del Añarbe, SA (aurrerantzean GECASA) sozietatearen kapital sozialean. Sozietate honen xedea da minizentral hidroelektrikoak, kogenerazio-instalazioak, biomasaren energia-aprobetxamendukoak, eguzki-energiakoak eta bestelako energiakoak sustatu, eraiki, birmoldatu eta hornitzea, bai produkzio elektrikorako, bai produkzio termiko edo mekanikorako, kontsumo propiora edo salmentara bideratuta.

2003. urtean, Sozietatearen partaidetza GECASAn horren kapital sozialaren % 2,44tik % 70era igo zen, Añarbe II zentral hidroelektrikoaren ekarpenari eta Sozietatearen beste bazkidea den Energiaren Euskal Erakundearen % 5 eskuratzeari esker.

Gaur egun, energia elektriko hidroelektrikoa produzitzeko GECASARI eman zaizkion ustiapen-emakidak Añarbe I zentrala (Añarbeko presaren oinean dagoen zentrala) eta Añarbe II zentrala (Goizuetako udalerrian dagoena) izenekoei dagozkie.

Gainera, Sozietateak Loiolako HUAn energiaren kogeneraziorako bi zentral ditu: batek gas naturala erabiltzen duten hiru motor ditu (1.416 kW-ko potentzia unitarioa dute); besteak, berriz, hondakin-urak arazteko prozesutik sortutako biogasa erabiltzen duten bi motor ditu (805 kW-ko potentzia unitarioa dute).

Azkenik, aipatzekoa da zortzi eguzki-zentral fotovoltaiko kudeatzen dituela. Horietatik zazpi 5 kW-ko potentzia izendatua dute eta AUSARI erosi zizkion. Zortzigarrenak, berriz, 70 kW-ko potentzia izendatua du eta Oriabentako edateko ura banatzeko biltegiaren gainean instalatu zuen GECASAK.

GECASAn 2021erako behin-behineko kontuak eta horien bihurketa GECASAn aurrekontu-arloko sarrera eta gastuen aurreikuspenetan —non arestian deskribatutako zentralen ustiapenetik sortzen diren eragiketak kontuan hartzen diren—, honako hauek dira:

GECASaren aurrekontuaren laburpena kapituluka:

Kapitulua	Sarrerren egoera-orria	Euro
3	Tasak eta bestelako sarrerak	3.008.800
8	Finantza-aktiboak	884.606
Sarrerren egoera-orria guztira		3.893.406

Kapitulua	Gastuen egoera-orria	Euro
1	Langile-gastuak	64.992
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.094.228
6	Inbertsio errealak	1.019.900
8	Finantza-aktiboak	714.286
Gastuen egoera-orria guztira		3.893.406

GECASaren aurrekontuaren xehetasuna kontu-sailka:

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Euro
343.01	Energia elektrikoaren salmenta – ZH 1	242.010
343.02	Energia elektrikoaren salmenta – ZH 2	161.340
343.03	Energia elektrikoaren salmenta – Kogenerazioa	2.119.774
343.06	Energia elektrikoaren salmenta – Fotovoltaikoa	47.479
343.04	Energia termikoaren salmenta	438.197
III. kapitulua guztira		3.008.800
880.01	Aurrekontua berdintzeko eragiketak	884.606
VIII. kapitulua guztira		884.606
Sarrerren egoera-orria guztira		3.893.406

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	Izena	Euro
130.01	Langile lan-kontratudunak	47.949
160.01	Gizarte Segurantzako kuotak eta Geroa	17.043
I. kapitulua guztira		64.992
201.01	Alokairuak	7.103
201.02	Alokairuak – Kogenerazioa	23.904
210.01	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – ZH 1	3.000
210.02	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – ZH 2	25.000
210.03	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – Kogenerazioa	417.118
210.04	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – Fotovoltaikoak	2.120
221.01	Energia elektrikoa – ZH 1	616
221.02	Energia elektrikoa – ZH 2	782
221.03	Energia elektrikoa – Kogenerazioa	32.639
221.04	Gas naturala – Kogenerazioa	849.177
221.05	Biogasa – Kogenerazioa	219.878
221.98	Bestelako hornidurak	754
221.99	Bestelako hornidurak – ZH 1 eta ZH 2	10.000
224.01	Ibilgetuaren aseguru-primak – ZH 1	6.120
224.02	Ibilgetuaren aseguru-primak – ZH 2	13.404
224.03	Ibilgetuaren aseguru-primak – Kogenerazioa	17.520
224.04	Ibilgetuaren aseguru-primak – Fotovoltaikoak	2.637
225.01	Bestelako tributuak – ZH 1	2.300
225.02	Bestelako tributuak – ZH 2	1.004
225.03	Bestelako tributuak – Kogenerazioa	11.837

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
225.04	Bestelako tributuak – Fotovoltaikoak	850
225.05	Konfederazio Hidrografikoaren kanona – ZH 1	90.343
225.06	Ur kontinentalak erabiltzearen ondoriozko kanona – ZH1	4.937
225.07	Ur kontinentalak erabiltzearen ondoriozko kanona – ZH 2	3.291
225.08	Energia elektrikoa ekoiztearen gaineko zerga – ZH 1	16.941
225.09	Energia elektrikoa ekoiztearen gaineko zerga – ZH 2	11.294
225.10	Energia elektrikoa ekoiztearen gaineko zerga – Kogenerazioa	148.384
225.11	Energia elektrikoa ekoiztearen gaineko zerga – Fotovoltaikoak	3.324
225.99	Sozietateen gaineko zerga	104.812
226.99	Hainbat gastu – ZH 1	4.211
226.99	Hainbat gastu – ZH 2	3.221
226.99	Hainbat gastu – Kogenerazioa	9.966
226.99	Hainbat gastu – Fotovoltaikoak	409
226.99	Hainbat gastu	20.000
227.01	Beste enpresa batzuek egindako lanak – ZH 1	1.680
227.02	Beste enpresa batzuek egindako lanak – ZH 2	3.480
227.03	Beste enpresa batzuek egindako lanak – Kogenerazioa	7.812
227.99	Beste enpresa batzuek egindako lanak	12.360
II. kapitulua guztira		2.094.228
623.01	ZH II: Alternadorearen estatorea, 2. multzoa	31.900
623.02	ZH II: Goi-tentsiok linea eta kaxak, erdi-tentsiokoak, “aparailuak” eta automatizazio osoa berritzea	350.000
623.03	ZK II: 1. eta 2. multzoetako turbinen errodeteak ordezkatzeari	63.000
623.04	KOGE: Gas naturaleko motorren ur-zirkuituaren hoztea hobetzea	70.000
623.05	EZF: Zentral fotovoltaiko berri bat instalatzea	500.000
623.06	Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	5.000

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
VI. kapitulua guztira		1.019.900
872.90	Gainerako ekarpenak (dibidenduak)	714.286
VIII. kapitulua guztira		714.286
Gastuen egoera-orria guztira		3.893.406

2021eko abenduaren 31n aurreikusitako GECASaren balantzea

AKTIBOA		PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		ONDARE GARBIA	
Ibilgetu materiala	2.866.044	Funts propioak	
AKTIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	2.866.044	Kapital harpidetua	1.812.802
		Jaulkipen-prima	2.129.404
AKTIBO KORRONTEA		Erreserbak	362.560
Zordun komertzialak eta kobratzeko		Ekitaldiko emaitza	567.060
Aurrekontuko zordunak	501.850	Funts propioak guztira	4.871.826
Aurrekontuz kanpoko zordunak	105.308	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta	33.101
Zordunak guztira	607.158	ONDARE GARBIA GUZTIRA	4.904.927
Eskudirua eta bestelako aktibo likido	2.070.194		
AKTIBO KORRONTEA GUZTIRA	2.677.352	PASIBO EZ-KORRONTEA	
		Geroratuko zergaren ondoriozko pasiboak	10.453
		PASIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	10.453
		PASIBO KORRONTEA	
		Epe laburrerako zorrak	0
		Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako	
		Aurrekontuko hartzekodunak	519.021
		Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	108.995
		Hartzekodunak guztira	628.016
		PASIBO KORRONTEA GUZTIRA	628.016
AKTIBOA GUZTIRA	5.543.396	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	5.543.396

2021ean aurreikusitako GECASaren galera-irabazien kontua

A) ERAGIKETA JARRAITUAK	
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	3.008.800
a) Salmentak	3.008.800
6. Langile-gastuak	(64.992)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	(47.949)
b) Karga sozialak	(17.043)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(1.989.416)
a) Kanpoko zerbitzuak	(1.694.911)
b) Tributuak	(294.505)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(290.370)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelako egozpena	7.850
A.1) USTIAPEN-EMAITZA	671.872
13. Finantza-sarrerak	0
14. Finantza-gastuak	0
A.2) FINANTZA-EMAITZA	0
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA	671.872
17. Mozkinen gaineko zerga	(104.812)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDIKO EMAITZA	567.060
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	567.060

2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion aurreikusitako GECASaren ondarean izandako aldaketen egoera-orria

2021eko ekitaldiari dagozkion aitortutako sarrera eta gastuen egoera-orriak

Kontzeptua	2021
A) Galera-irabazien kontuaren emaitza	567.060
Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak	
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak guztira	567.060
Transferentziak galera-irabazien kontura	
VIII. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	(5.966)
IX. Zerga-ondorioa	(1.884)
C) Transferentziak galera-irabazien kontura guztira	(7.850)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	559.210

2021eko ekitaldiari dagokion ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria guztira

	Kapital eskrituratua	Jaulkipen- prima	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Jasotako dirulaguntza k, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2019ko amaierako saldoa	1.812.802	2.438.667	581.526	597.463	45.033	5.475.491
B) 2020ko hasierako saldo doituia	1.812.802	2.438.667	581.526	597.463	45.033	5.475.491
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	302.880	(5.966)	296.914
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin						
4. (-) Dibidenduen banaketa	-	-	(714.286)	-	-	(714.286)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	-	597.463	(597.463)	-	-
C) 2020ko amaierako saldoa	1.812.802	2.438.667	464.703	302.880	39.067	5.058.119
D) 2021eko hasierako saldo doituia	1.812.802	2.438.667	464.703	302.880	39.067	5.058.119
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	567.060	(5.966)	561.094
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin						
4. (-) Dibidenduen banaketa	-	(309.263)	(405.023)	-	-	(714.286)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	-	302.880	(302.880)	-	-
E) 2021eko amaierako saldoa	1.812.802	2.129.404	362.560	567.060	33.101	4.904.927

F) Maileguen egoera

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren hasieran eta itxieran aurreikusitako zorpetzea

2021eko urtarrilaren 1ean aurreikusitako egoera

AUSA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
Kutxabank	2007/12/26	995.000	Euribor + % 0,10	163.356	-	2022/12/26
Kutxabank	2008/12/17	725.000	Euribor + % 0,70	173.897	-	2023/12/17
Bankia	2006/12/20	1.000.000	Euribor + % 0,08	79.265	-	2021/12/20
Caixabank	2008/12/19	725.000	Euribor + % 0,70	188.358	-	2023/12/31
Caja Rural Navarra	2009/07/29	860.000	Euribor + % 0,90	269.370	-	2024/07/29
Bankinter	2013/12/18	1.022.856	Euribor + % 1,85	151.093	-	2023/12/18
Caja Rural Navarra	Finkatzeke	1.226.942	Euribor + % 0,685	1.226.942		2015
AUSAren saldoa guztira 2021eko urtarrilaren 1ean				2.252.281	-	

GECASA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
GECASAREN saldoa guztira 2021eko urtarrilaren 1ean				0	-	

2021eko abenduaren 31n aurreikusitako egoera

AUSA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa	Interes-tasa	Saldo bizia	Erabili gabea	Muga-eguna
Kutxabank	2007/12/26	995.000	Euribor + % 0,10	81.678	-	2022/12/26
Kutxabank	2008/12/17	725.000	Euribor + % 0,70	116.089	-	2023/12/17
Bankia	2006/12/20	1.000.000	Euribor + % 0,08	0	-	2021/12/20
Caixabank	2008/12/19	725.000	Euribor + % 0,70	130.625	-	2023/12/31
Caja Rural Navarra	2009/07/29	860.000	Euribor + % 0,90	198.423	-	2024/07/29
Bankinter	2013/12/18	1.022.856	Euribor + % 1,85	101.606	-	2023/12/18
Caja Rural Navarra	Finkatzeke	1.226.942	Euribor + % 0,685	1.226.942		2015
Mailegu berria 2021		1.531.278		1.600.792		
AUSAren saldoa guztira 2021eko abenduaren 31n				3.456.155	-	

GECASA

Erakundea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
GECASAREN saldoa guztira 2021eko abenduaren 31n				0	-	

G) Zorpetzearen eranskina

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietateak 2021eko abenduaren 31n izango duen zorraren aurreikuspena, aurreko tauletan azaldu den xehetasunen arabera, 3.456.155 €-koa da.

Zorpetze-mailari dagokionez, haren erregulazioa Gipuzkoako Toki Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 51. artikuluan eta hurrengoetan jasota dago.

Aipatutako arauaren 53. artikuluan xedatzen den prozeduran oinarrituz, ondoren Sozietatearen zorpetze-maila xehatzen da, kontuan hartuta maila hori lortzen dela, batetik, indarrean dauden kreditu-eragiketen ondoriozko finantza-karga ordaintzera bideratzen diren kopuruen eta, bestetik, eragiketa arrunten ondoriozko sarreren arteko zatiduratik.

2020ko ekitaldirako eragiketa arrunten ondoriozko sarreren likidazio-aurreikuspena 19.935.008 €-koa da. Formalizatuta dauden eta 2021ean formalizatuko diren kreditu-eragiketengatik urte horretan ordaindu beharreko finantza-karga teorikoa 599.715 €-koa izango dela aurreikusten da.

Azaldu denaren arabera, ondorioztatzen da Sozietatean aurreikusitako legezko zorpetze-maila, 2021eko ekitaldirako, % 3,01ekoa dela.

III. AURREKONTU OROKORRA GAUZATZEKO ARAUA

1. artikulua

Aurrekontua onartu, kudeatu eta likidatzeko, toki-erakundeei aplikatu beharreko aurrekontu-araudian eta aurrekontua gauzatzeko arau honetan xedatutakora egokitu beharko da. Aurrekontuaren indarraldi bera izango du arau honek. Hori dela eta, aurrekontua luzatuz gero, arau hau ere indarrean egongo da aldi horretan.

2. artikulua

Arau hau Aurrekontu Orokorra gauzatzeko eta garatzeko aplikatuko da. Hortaz, aplikatzekoa izango da, oro har, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietatearen aurrekontua gauzatzeko ere.

3. artikulua

Ekitaldirako Aurrekontu Orokorra Mankomunitatearen beraren eta haren Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA sozietatearen aurrekontuek osatzen dute. Horietan, aipatutako erakundeei aitortzea aurreikusten duten betebeharren adierazpen zifratu eta sistematikoa jasotzen da (Mankomunitatearen kasuan, izaera mugatzailearekin), baita ekitaldian zehar likidatzea aurreikusten duten eskubideena ere. Zehazki, honako hauek dira bakoitzaren zenbatekoak (eurotan adierazita):

Erakundea	Gastuen egoera-orriak	Sarrerren egoera-orriak	Baliabide arruntak
Mankomunitatea	10.001	10.001	10.001
AUSA	24.041.423	24.041.423	19.191.757

4. artikulua

Mankomunitatearen gastu propioen aurrekontuko "Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak" izeneko 2. kapituluaren lotura juridikoa kapitulu-mailakoa izango dela finkatzen da.

5. artikulua

Gehieneko berme- eta zorpetze-mailak Aurrekontu Orokorra osatzen duten 2021erako aurrekontuetako sarrerren egoera-orrietan jasotako baliabide arrunten zenbateko osoan finkatzen dira.

6. artikulua

Mankomunitatearen gastuen aurrekontuko honako kontu-sail hau zabaldu egin daiteke, hari esleitutako finantzaketaren arabera:

KREDITU ZABALGARRIA

Kontu-saila	Izena	Hasiera ko zenbatekoa (€-tan)
227.99	Kanpoko beste lan batzuk	1

FINANTZAKETA

Kontu-saila	Izena	Hasierako zenbatekoa (€-tan)
399.01	Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak	1

Eskubide handiagoak aitortzearen arabera zabaldu daitekeen kreditua kredituak gaitzeko erregimenaren bidez finantzatuko da.

7. artikulua

Mankomunitateko Presidentetzari dagokio kreditu osagarriak onartzea, baldin eta Aurrekontu Orokor Bateratuaren % 5 gainditzen ez badute eta diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen badira.

8. artikulua

Mankomunitateko Presidentetza izango da zergapekoak ez diren ondare-prestazio publikoen ondoriozko sarreraren likidazioen subjektu pasiboek aurkez ditzaketen errekurtsioak ebazteko organo eskuduna.